


Erref. kodea: LAF-402-025

Izenburua: Bertsopaperak, [1849-1950]



1873. Sara

1873

NEURTIZTARIEN GUDUA.

SARAKO BESTAN

GARHAI-SARIA

ERAMAN DUTEN BI KANTUAK

HERGARAYEN izenean ekharriak.

BILDOTCHA ETA OXOA.

Primadera goiz batez  
chirripa batera,  
Bildotch bat ama gabe bildotcha  
gan zen edatera.  
Hantchetari gelari  
churga-churga hera,  
Oihanetik oxo  
zitzaion athera.


Oxoak gorachago  
chirripa sarthurik,  
Oihuz hasten da : « Ur hau, oriaten dit  
« ikhingen dautak hit! »  
— « Barkha diezadazu, Bildotchak errepresta  
« jauna, nik segurik,  
« Hemen die ez dezaket Beharrik ez die  
« ikhin zure urik. »

« Kichkila, bazakiat,  
« jaz hi ari hintzen  
« Ene fama onaren  
« non nahi funditeen. »  
— « Jauna, jaz ni oraino  
« sortzea nintzen ;  
« Amaren titirat naiz  
« orai ere bilteen. »

— « Hice anaia zuan, duk hobendun  
« hi ez balin bahaiz. »  
— « Ez dut nik anaiarik,  
« ume bakharra naiz. »  
— « Segur nuz, hiretari  
« entzun die nik maiz,  
« Arneguz desiratzen  
« niri ger nahi gaitz. »

Hortan zen  
Hansari bildotchi  
Oxoa...  
Sta Bi klasaz laster zuen  
irexi gaichoa.  
— Azkarra duenean  
partida flakoa,  
Hauzia zoinena den  
erran gabe doha.

Oxoak bildotchi  
egun goiena,  
Jainko leguetik kampo,  
nor orai kondena?  
Italian, Prusian,  
hori da zuzena;  
Bertetan ere aseoc  
eguiten dutena.



BELEA ETA ACHERIA.

*Jasan-ahalicaco Belea haragiki*  
*puska eitei bat motooan,*  
Belea zagon behin *haren jateko rayon*  
Haitz baten *hasoan.*  
Acheria, ihigin,  
han gaindi bazohan.  
Belea *ieusirie Usainka eta beha*  
trikatzen zaio han.

*Egun on*  
« Agur, Musde Belea;  
*Zer fun ederra zu* « zoin eder zaren zu!  
« Zure luma pullitaz *diridiaz*  
« liluratzen nauzu.  
« Cantua luma becein *Kantari edo baten*  
« eder ahal duzu; *fama ere duzu*  
*Mahi sintuzet* « Ai! entzun nahi nuke:  
« othoi Ganta zazu. »

*Belea loietan*  
Coac-coac! *arrai hasten da kantatzen*  
Belea cantateen,  
*Zehe bat Mocoq duelari*  
*Mokoa Maltres* « *bat largateen.*  
Haragai pusca zaio *Bere zibia zaio*  
lurrerat erortcen.  
Acheriae ez zuen *hain chuchen*  
bertceric *asmateen. altchatzeko hantzen*

Bazca hatzeman eta *Acheriak: Milester*  
dio beleari:  
« Ez gaitela, to, fida  
« lausendariari,  
« Ez cerbeit garlaco eta ere *gure*  
*eder* « *gure* usteari.  
« Chitchi hau zor *derantac Jaki han dait hantzen*  
« hitz on horren sari. »


OHOREZCO AIPAMENA

Joseph ANSOARENARI

DEMBORAREN LABURTASUNA ETA HERIOTZEA

DERITZAN NEURTIZTALDEARENTZAT.

Bayonne. — Imprimerie Lamaignère.



1874-Sara

1874.

NEURTIZTARIEN GUDUA.

SARAGO BESTAN

LEHEN GARHAIT-SARIA, MAKILLA

Eraman duen cantua BISCAITARRAC eguina.

JAUNGOICUA TA ERRIJA.

Ea bada, mutillac, jaqui gogorturic,  
Fusillac baionetac artu berbertaric;  
Jaungoicua ta Marija doguz gure aldetic,  
Europa contra izanic ez dogu beldurric.  
*Barrizetacoa.*

Ogueta amabost urthe diras iraguac  
Aguintzen deusubela liberal gaistuac.  
Astrucija andijacas, madaricatuac,  
Engañau citubezan Español sintzuac.  
Ea bada, etc.

Judasec saldu eban ceruco maisua  
Maroto generalac Carlos guisausua.  
Villauqueria onegas jaso san tronua  
España gustijentzat zori gaistocua.  
Ea bada, etc.

Isabelen guerisan baltz infernucua  
Bete ditubez ondo euren poltzicua.  
Quendu deusubes guri gueldica foruac;  
Ascoc artu ditube gradu ta empliua.  
Ea bada, etc.

Iños aspertu ecinic dauquen egarrija  
Mutildu dabe ederto España errija;  
Gueratu erreñuau; o ce lotzarrija!  
Alcarren jelosijas galduta gustija.  
Ea bada, etc.

Esquerric baltzanagaz; o ce gente fina!  
Asquenez bota dabe euren erreguiña.  
Aguintari izatia, diruba, atseguña,  
Izan da liberalac beti zuben griña.  
Ea bada, etc.

Aguintari jarri da gente ichusija,  
Serrano ta Topete Prim da familia,  
Onelan bete dabe dauquen banerrija  
Orbainduric galanto euren contzentzija.  
Ea bada, etc.

Ardijen narrubagaz jantcirico otzuac  
Izan dira ta dira liberal paltzuac.  
Otzo onen artian ez dira mancuac  
Ardi triscantaraco gaurco ministrua.  
Ea bada, etc.

Eleiza santiari deutsen gorrotuac  
Artu eraguin deutes diabusco asmuac.

Erbestetu ditube Jesusen soldauac,  
Eta bota lutarras mojen conventuac.  
Ea bada, etc.

Liberalen artian daucas diabruac  
Arimac galduteco lagun asartuac;  
Entzun ditus Madrilgo diputau lecuac  
Dardar eraguiteco izcuntza moduac.  
Ea bada, etc.

Ucatu da Jesusen Jaungoicotasuna,  
Ta bardin Marijaren Dontzellatasuna.  
Andija da benetan Jaunen ontasuna  
Igaroteco isilic iraiñ aiñ astuna.  
Ea bada, etc.

Baltzen gaistotasunac ez dauco neurriric;  
Ezin daves icusten fededun guizonic.  
Pecatu andijenez aspertu bagaric,  
Aldendu gura dabe Fedia gugandic.  
Ea bada, etc.

Mesprecijau ditudes onen erreguac  
Españan ez zartzeco jaungoico paltzuac.  
Eregui daijesala, diñue, Templuac  
Eretico, judegu, gentil da Turcuac.  
Ea bada, etc.

Oraindino badago Españan lotzaric  
Ecin igaro leiques gauça onec gueldiric.  
¿Euscaldunen artian ote da mutilic?  
¿Ala dagos guizonac ollo viurturic?  
Ea bada, etc.

Amar milla ainguerugas! ez orrelangoric,  
Euscaldunen vijotza ez dago olloturic.  
Jaqui gaitazan heras danoc bat eguiñic  
Liberal arruari jarquiten gogotic!  
Ea bada, etc.

Bai bai irasartu da lo cegon legoya,  
Españan entzuten da oraiñ bere orroya.  
Alperric jaqui contra Tirio ta Troya;  
Carlosec jantcico dau Erregue coroya.  
Bai bai irasartu da, etc.

Carlos zaspigarrena gueure jaun maitia,  
Zure premiñan dago Euscaldun gentia.  
Zapalduric betico liberal castia,  
Zugas euquico dogu biardun baquia.  
Bai bai irasartu da, etc.

Españaco coroya buruan jantzita,  
Don Carlos izango da Españolen aita.  
Esan bada gogotic bildurrari ichita :  
VICI BEDI DON CARLOS TA ANDRE MARGARITA.  
Bai bai irasartu da, etc.

Ea bada, mutillac, jaqui gogorturic,  
Fusillac baionetac artu berbertaric ;  
Jaungoicua ta Marija doguz gure aldetic,  
Europa contra izanic ez dogu beldurric.  
**Biscaitarra.**

Hiizcuntza batzuen arguitaria.

*Iraguac, iraganac. — Aguintzen, manatzen, nausitzen. — Sintzuac, leyalac. — Maisua, nausia. — Jaso, alchatu, jaiki. — Poltzicua, sakelac, zarpac. — Aspertu, ase. — Mutildu, dipildu. — Gueratu, aurritu. — Lotzarija, ahalkea. — Aguintari, nausi, guehien. — Narrubagaz, larruarekin. — Triscantzaraco, mochleraco. — Goroto, herra. — Erbestetu, desterratu. — Irain, gaizki, crimo. — Astuna, pisua. — Eregui, aicha, eraiki. — Igaro, pasa, iragan, igaran. — Tirio, hiri aberaxa Parise bezalacoa. — Troya, astruciasco hiria Berline iduria.*

## BIGARREN GARHAIT-SARIA

UNTZA-URHEA

Eraman duen cantua **SEMPERTARRAC** eguina

### BETIRI-SANX.

1.

Betiri Sanxeren berriric  
Aspaldi ez cen deus handiric ;  
Cioten ehortci zutela biciric.  
Lurpetic ilkhiric,  
(Ez duc ez irriric.)  
Munduz mundu herratua ibiliric ;  
Oraicoti ditu Betiric  
Indarrac hartu guc utciric,  
Orai dago cargu handitan jarriric  
Orai dago cargu handitan jarriric.

2.

Betiri Sanx bai lehen ere  
Cer cen ezagaturic gare ;  
Cer nahi miseria eta dolore.  
Demboraz hain pobre  
Orai cen podore !  
Jaincoric ez dutenen emperadore,  
Bethi gaichtaginen fagore,  
Bandera nahi den colore ;  
Oraico mende guisan hare du ohore  
Oraico mende guisan hare du ohore.

3.

Betiri Sanx dago oiluca  
« Biba biba errepublica !  
Nahi ez duenari lephoa pica. »  
Jendea dabilca  
Nahasiz trumilca  
Umatua libertate ukhaldica  
Jaincoa ukh-eta ostica  
Bainan Bettiri ez kitica  
Aztaparra bezote denec milica  
Aztaparra bezote denec milica.

4.

Legue munduco errechena  
Omen da Betiri Sanxena ;  
Bethi haizu dela eguin daitekena.  
Ahal gabe dena,  
Hare du hare hobena ;  
Indarrac du orai garhaitcen zucena.  
Contcientiaric duena  
Ez da bethi irabaz dunena.  
Fricun adret bat orai nola condena ?  
Fricun adret bat orai nola condena ?

5.

Betiri-Sanxtarren Jaincoa  
Da mundu huntaco gozoa  
Erlichione libro eta largoa,  
Apez gabecoa,  
Erran gabe doha ;  
Gure chakurrac dic hola holacoa.  
Bici huntaric ondocoa  
Cer daiten edo nolacoa  
Hortaz ez dute hambat khechu gogoa  
Hortaz ez dute hambat khechu gogoa.

6.


Betiri Sanxen soldaduac  
Nun nahi dire nausituac.  
*Framazon*, escuaraz *Harquinbelz* deituac.  
Heien secretua,  
Cin eta patuac,  
Lurp-eta ilhumbetan daude sarthuac.  
Jaincoric ez nahiz munduac  
Hec ditu guidari hartuac.  
Ez dic gaizki irri eguiten debruac  
Ez dic gaizki irri eguiten debruac.

7.

Betiri Sanxen haur gucia,  
Ttikitic libroric haciac,  
Adinic gabe cer nahi ikhasiac.  
Bicioz gaindiac,  
Cein nardagarriac !  
Onhestate-ta ahalkea utciac.  
Deus onic ez eguin nahiac,  
Gormant bano eta naguiac,  
Irexiac dagozca debochkeriac  
Irexiac dagozca debochkeriac.

8.

Betiri Sanxen zangoetan  
Oi combat dabilzan herresta !  
Eta combat den haren atzapparretan !  
Pobre-ta jaunetan  
Gradu gucietan  
Hainitz dire hola sarthuac saretan.  
Asco bicitce moduetan,  
Jaincoric nahi ez denetan,  
Beteri Sanx da nausitcen gucietan  
Beteri Sanx da nausitcen gucietan.




Kantiac Fingoin




# KANTIAK IRIGOIN, HAGUIN

*Atheratzaliaren gainean.*



Ene lehen sujeta Amikuzen sortu.



Bayonna hirian du egoitza finkatu.



Eskualdun herriac behar du aditu. Nola du



en ttipia Jainkoac altchatu.

1

Ene lehen sujeta, Amikuzen sortu,  
Bayonna hirian du, egoitza finkatu,  
Eskualdun herriac, behar du aditu;  
Nola duen ttipia, Jainkoac altchatu.

2

Aitasoc eguin zuen, lastozco etchola,  
Larre comun batian, oher datchikola,  
Saski eguinez bizi, berac zakin nola  
Hor herriko mordebat, heldu laguntzera.

3

Etchola ingurian, morde Yaunac eman,  
Comunetic pheza bat, entseya zadin han,  
Etcholaren jabiac, bayez bai hitzeman,  
Hitzeman zuen eta, ez segur hitza jan.

4

Untasun ttipittobat, baitzuen plantatu,  
Ume zaharrenatzat, erruac landatu,  
Ondokoec erranen, dutela handitu,  
Azia bota bedi, zerbait'kharrirendu.

5

Ene sujeta laster, lanari ohartu,  
Zazpi zortzi urthetan, deraut declaratu,  
Aita amec zutela, kampuan plazatu,  
Artho jaliac nahiz, etchian ttipitu.

6

Burrasoac etchian, pobretto baitziren,  
Haurrac ezin altchatuz, penatuac ziren,  
Ezen ttipi ttipiac, hamarbat baziren,  
Guefoac erranen du, zertaratu diren.

7

Zaharrec erran dute : « Haur anitz etchian,  
Errekarat ez dire, yuain familian, »  
Oroc froga dezagun, egung'egunian,  
Amikuze aldian herritto batian.

8

Hamar haurretariac bat, abila guerthatu,  
Bere baitharic hanitz, entsegu kurritu,  
Milla cherkat'ondoan, bat ona khausitu,  
Horrec beharko ditu, guciac altchatu.

9

Laborari et'artzain, egonic herrian,  
Muthil sarthu Bayonan, Semenarioan,  
Abila maithatia, nausien artian,  
Bai lagunduren dute, ber'abilezian.

10

Pareric ez baitzuen, haguin atheratzen,  
Ongui eri zireqec, zuten bisitatzen,  
Kampotic ere frango, jendia ethortzen,  
Ordian oi oraino, kitoric arizen.

11

Nausi jakintsun bati, eskerrac bihurtzen,  
Dayolakotz ikhasi, haguinen plomatzen,  
Lastertto bai trebatu, berrien ezartzen,  
Gueroztikan munduan, norat nahi prest zen.

12

Bayonna du tokitzat, beraz hautatuko,  
Nontic nahi pratika, baitzaio bilduko,  
Merke ariko bainan, moltsa largatuko,  
Haurridiac, sor etche, oro goratuko.

13

Bi etchalde aüzuan, erosiric ditu,  
Hogoi'ta hamar milla, libera pagatu,  
Sarrikotac, bertzeric, holakorice ez du,  
Aitasoren etcholac fruitu ekharri du.

14

Bache-nabarren badu, aspaldin emplegu,  
Laphurdi ere oro, bere eskian du,  
Eskualdun maitiac, ahuan min badugu,  
Sendotzera guziac gomitatzen gaitu.

27  
26  
25  
24  
23  
22  
21  
20 15

19 Bi anaya berekin, ongui ikhasiric,  
18 Halarikan ere ez, oren saltzekoric,  
17 Bere gaichoac nahi, utzi lagunduric,  
16 Ah! hori maithagarri, oi haurridetaric.

17 16

16 Emaste balios bat zeraiko guerthatu,  
15 Jainko leguearekin, dotia kondatu,  
14 Deya seme alaba, ederrac baditu,  
13 Pobre sorthuzen, bainan, puchant hil behar du.

14 17

13 Bethi egon da kharsu, zeruko Jaunari,  
12 Badaki harc dayola, arguia igorri,  
11 Eskerren bihurtzeko, Jainko maitiari  
10 Jarraikitzen da egun, guziez mezari.

11 18

10 Oroc othoiz dezagun, zeru lurren jauna,  
9 Harec behardu eman, hemengo fortuna,  
8 Bertze mundukotzat bai, aldiz zoriona,  
7 Jaun Irigoin gainian, har exemplu ona.

8 19

7 Adios Irhatchetko, semia adios;  
6 Zure adichkidia, nago ni bethicoz;  
5 Ez dugu ikhusiren elgar egun oroz,  
4 Bainan jakinen tugu berriac ichkriboz.

5 ADICHKIDE BATEC.:

4 *Le 28 Mai 1888.*



Eriau burv: Ewaste Eolaba

# EMAZTE EDALEA.

AIRE HUNTAN : *Hau da ikhasketaco mandoaren traça.*

Munduan ikhusten da hainitz bicio,  
Hoberenetic ere deus ez balio;  
    Bainan halere  
Ohituz gueroz hartan, bertceac bertce,  
    Çor edo hartce,  
Ecin arnega daite, arras hil arte. *(Biz.)*

Emazte edalea da higuingarri;  
Dabilan urrhaxetan, hain hirrigarri  
    Haren manera?  
Çokhoz çokho batetic eta bertcera,  
    Sar et'athera :  
Eabclotic en kotça doha etchera. *(Biz.)*

Flasco muthur luce bat, bethi gordea,  
Ostaturat badaki ongui bidea;  
    Balitz erraile  
Edari churi gorri cembat suerte  
    Ahal lakike,  
Ibilirie senharrac deus yakin gabe *(Biz.)*

Çaku bat mandatari, bihiz bethea,  
Irauten duen arte badu bakea;  
    Guero behar du  
Ohe eta athorrez eguin merkhatu,  
    Dohainic saldu :  
Senharra eguin liro, ahalic balu! *(Biz.)*

Emazte edalea alferketari,  
Hauçorat yoan eta, berri condari.  
    Egun erdiac,  
Senharra eta haurrac, landan guciac,  
    Erdi goseac :  
Artha guti heyetaz cintçur luceac. *(Biz.)*

Ama biciotsua, hire haurrentçat  
Mundurac sorthu hintcen, heyen caltetçat,  
    Dudarie gabe.  
Nore nahi dun har detçan etcheco andre,  
    Ez eguin yabe :  
Beldurrez hi beçala, diren edale. *(Biz.)*

Emazteki çoroa, hic çahartcean,  
Egoitçarie ez duken sarri ethean,  
    Luça etciron.  
Umekin ere ecin haiteke egon,  
    Deusetan ez hon;  
Lehengo adichkidec ez nahi nehon. *(Biz.)*

Bici iraganari, ukho eguinic,  
Sar beraz hire baithan orai beretic;  
    Othoitz Yaincoa,  
Içan ez hadiela, ez lehengoa,  
    Ez hain flacoa :  
Etchean emanen dun, bake osoa. *(Biz.)*

ELISSAMBURU,  
*brigadier des douanes à Urrugne.*


Zure sewak

ZURE SEMEAK

*Errepika*



Zu - re se - me - ak gi - ra No - la zu ez mai -



tha! San Frantses, i - zan zaite bethi gure Ai - ta.

*Kopla*



1. Gu - re ai - tar - en or - den Hiru - garrene - an He -

2. Mundu - a i - ra - ga - nik Bizi tze sainduan Ze -

3. Gaisto - ak ondu e - ta on - en hobetze - al Gu -



1 men gaude bil - du - rik A - nai - ta su - ne - an.

2. ru - rat i - gai - te - ko Hil - tzen gi - re - ne - an.


3. re ban - de - ra i - zan be - di ku - ru - tze - a.

~~~~~

CANTIQUE A ST FRANÇOIS



1. O gu-re Ai-ta, San Frantses mai-te - a,
2. Be-hartsu zi-nen bi - zit - zen mundu - an,
3. Je-sus dauka-zu be - thi bi - ho-tze - an.



A - mo - di - oz - ko Se - ra - fin kar - ts i - a,  
On - ta - sun ga be, a - rin bi - ho - tze - an;  
Na - hi zin tez - ke Ha - ren ku - ru - tze - an:



Ze - ru bi - de - an ai - tzi - na - tu - a.  
A - ber - rats zi - ra Jau - na - ren on - doan,  
Bost zau - ri e - der Be - re i - du - ri - an



I - zan zai - te be - thi gu - re gi - da - ri - a.  
Se - ku - la gu - zi - ko, han, o - rai, ze - ru - an.  
E - zar - ri dauz - kit - zu zu - re gor - phu - tze - an.





Pilotarak

# PILOTERAK

1

Pilotako jokoak  
Eskualherrietan  
Bethidanik ohore  
izan dik jendetan:  
Gure mutiko gaztek  
agertzen ditok han  
Badutenez Eskualdun  
odolik zainetan.

2

Lehengo pilotari  
handien izenak  
Gogoan atchik betza  
orai bizi denak.  
Eskualdun gizon gazte  
zalhu'ta lerdanak,  
On da ernaraz detzan  
heien aiphanak

3

Perkain eta Azantza,  
zer pilotariak!  
Aspaldikoak dire  
heien balentriak.  
Elgarren bethe ziren  
esku hutska biac:  
Ez zuen negurririk  
heien ukhaldiak.

4

Bai besain, bai besazpi,  
bai pumpa lasterrak,  
Denak eder zituen  
Kurutchet ezkerak.  
Domingo Ezpeletar  
zafrari supherrak.  
Choraturik zagozkan  
hark ere bazterrak.

5

Yandarna Betiri'ta  
Herorizko Martin,  
Bi soldaduaneko  
osab'ilibekin :  
Echkand'eta Ibarla  
Duronearekin,  
Goretik, aphaletik  
ari ziren berdin.

6

Bettiri Zuraidarra  
zen erreferari ;  
Sustunen aldi bazen  
nork ihardok hari.  
Onddore'ta Putiko  
eta Franchistegi  
Rumebarekin ziren  
butatik pikhari.

7

Kaskoinak eskularruz,  
berraturz, chirrichtan,  
Pilota nora nahi  
lorian zabilkan.  
Yokoz bezala kaskoz  
ez da nihor izan  
Kaskoinaren pareko  
pilotaririkan,

8

Lopetegi, Gamio,  
Hauziartz, Tripero,  
Domingo-Harriaga  
Senjan, Kandelero,  
Ottarre'ta Norbertto,  
Larronddo'ta gero,  
Yanbaticht chantrea zen  
pasolari bero.

9

Irunen partida bat  
guk irabazirik,  
Española zen laster  
chutitu bizirik  
Melchor, Antsa, Manuel.  
bai eta bertzerik  
Athera zitzaizkigun  
gu bezein treberik.

10

Español hoikiari  
buru egiteko  
Behartu zaizkigunak  
huna bertze asko :  
Mattiu, Betti, Halty  
Gregori, Tikito,  
Bi Dihartze, Larralde,  
Hon zembat holako?

11

Larronddoren bi seme  
Yatsa eta Chilhar,  
Ez daiteke pilotan  
nihor hobeki har.  
Nork du hoiek bezembat  
antze eta indar?  
Ai egun bezein gazte  
balagozi bihar!

12

Berterretche, Patzola  
eta D'Abadia ;  
Sakhatik da bihurri  
hoien ukhaldia.  
Orai da bertze sail bat  
agertzen hasia  
Ottarre gazte horri  
jarraiki nahia.

13

Chaharrak ezindu'ta  
balin bazohazte,  
Zuekin ikhasiak  
huna zembeit gazte ;  
Hauk ere odol eta  
zain berak dituzte :  
Nork zuen hoinbertce'ta  
holakorik uste.

14

Guzien gaintetik bai,  
ohore Sarari  
Bethi atherako da  
hortik pilotari.  
Hazparne hortan ere  
badire noiz nahi  
Ohore baitaukote  
beren herriari.

15

Espelet' eta Khambo,  
Azkain et' Ahetze;...  
Hoietan ere bada  
noiztenka hainbertze.  
Sempererckin dago  
gibel Uztaritze ;  
Ez da denetan berdin  
gostu edo antze.

16

Ez dire Bachenabar  
ez eta Clubero  
Eskualdun joko huntan  
aspaldi hain bero.  
Eskualdunak pilota  
utz baleza, gero  
Kaskoindu dela fama  
laster jarraik lero.

17

Pilota partida bat  
Eskual herrietan  
Baitezpada behar da  
Eliza bestetan.  
Ederrago laiteke  
herrico semetan  
Zembeit bedere balitz  
Pilotari hetan.

18

Pleka beizik ez ariz,  
Denen arabera,  
Pilotari guti da  
nortarik athera :  
Ezohot zaharlean  
artzea hobe da  
Han du chachak abilki  
hausten errefera.

19

Botariaren joko  
latz eta borthitza!...  
Maiz haren eskuan da  
partidaren giltza...  
Errechachako edo  
arte jo murrirtza...  
Kintze gudukatuan  
hark du azken hitza.

20


Pik arrasak ez badu  
errefera hiltzen  
Erroboteko joa  
urrun da airatzen,  
Pilota harat hunat  
gero da ibiltzen,  
Azkenekotz huts edo  
chacha da gelditzen.

21

Oro plazara bilduz  
hantehe beha gaude :  
Bortz bortzi ari dire  
nor zoin jokoz hobe  
Zoinek jo chuchenenik  
biñi eto tore  
Irabazleek dute  
gero han ohore.

22

Primadun partidetan  
begira nargatik,  
Yoko faltsorik nihork  
guri egitetik.  
Pilotan ari denak  
sariaren gatik,  
Zinez ari ez bada  
ohorerik ez dik.



Jean Barbier



GURE HAURRAK GURE.

Es-kual - dun Ai - t'a - ma lo - khar-

tu - ak, I - ra - tzar, ez e - gon uz - kur - tu - ak, E - tsai-

a da ja hur - bil - du - a, Zu - en haur - rez je - los - tu

*Errepika.* *f* *dolce.*

a. Gu - re haur - rak, gu - re haur maite - ak Gu - hau - re -

nak di - ra e - ta ez bertzenak, Gu - re haur - ren a - ri - ma

gaicho - a Ez duk i - za - nen e - tsai gaichto - a !

— I —

Eskualdun Ait'ama lokhartuak,  
Iratzar, ez egon uzkurtuak,  
Etsaia da ja hurbildua,  
Zuen haurrez jelostua

## ERREPIKA

*Gure haurrak, gure haur maiteak,  
Guhaurrenak dira eta ez bertzenak,  
Gure haurren arima gaichoa  
Ez duk izanen, etsai gaichtoa !*

— 2 —

Guhauri ezin nehola lotuz,  
Doazi haurreri atrebituz,  
Heier buruz, Jaunak emanak,  
Baitugu aztapar onak.

— 3 —

Zatozte beraz bai lausengaka,  
Zatozte bardin heia goraka,  
Otsoarean orro-marrumak  
Ez tu lotsatzen ait'amak.

— 4 —

Elizak, hil-herritako hilak  
Ditzue oro arroatuak,  
Jainko-Jauna gure lekhuko,  
*Haurrak zausku geldituko.*

— 5 —

Eskualdun aita-ama maiteak,  
Barna har zuen eginbideak :  
Haur ttipia fedea z hazi,  
Jainkoaz dadien bizi.

— 6 —

Oi Jesus ! haur ttipiño izana,  
Behazu Eskualdun haurren gana ;  
Zuk zerutik zainduz geroztik,  
Nork khenduren tu gu ganik ?

J. B.

## GAZTE ESQUALDUNERI.

*Aire beraren gainean.*

— 1 —

Jainkoak egin nau Eskualduna,  
Ait'amek moldatu fededuna,  
Gaztea naiz eta lerdena,  
Dena Jesus onarena.

ERREPIKA

*Bertze batzuk eman dezatela  
Plazerretan higatu duten ahala,  
Hogoi urthe dituk, ner'odola,  
Jainkoak beretzat har hezala !*

— 2 —

Dembora ilhun eta dorpeak  
Doazi aspaldiko urtheak,  
Ilhunbeen kasatzaileak,  
Horra Eskualdun gazteak.

— 3 —

Oi Jesus, nere Nausi maitea,  
Zer duzu nahi guk emaita ?  
Naizena, ni, guzi-guzia,  
Oro naiz oro... zurea.

— 4 —

Errege guziek badituzte  
Ondoan, ainitz soldado gazte,  
Gure gaztek, Jesus, zu zauzte,  
Errege harturik maite.

— 5 —

Behazu non diren zure haurrak !  
Zuretzat huna heien bulharrak ;  
Zuretako bai gure kharrak,  
Ooren bihotz suharrak.

— 6 —

Etsaia orai ager dadila !  
Oldarrez, indar egin dezala !  
Kusiren du azkar dagola,  
Gure zainetan, odola...

J. B.

NIHIL OBSTAT :  
J.-B. DARANATZ.

IMPRIMATUR :  
J.-P. DIHARCF.





— 1 —  
**GERLA-TOKITIK**

**NERE AMARI**

**AIREA : Uso churia, errazu**

Eskualdun Soldado Maiteen  
ohoretan

1

Ama maitea, gerlatik.  
Bi lerro hauk, bihotzetik ;  
Heldu zauztan bezala, gogotik  
Igorzen dauzkitzut, zilotik,  
Nigar ezti bat begitik  
Eskapatzen zautalarik ! *(bis)*

2

Gau erdi da, ama ona,  
Ichil dago Alemana ;  
Gau bat ederra, gau eztiena,  
Gauetan choragarriena,  
Nere bihotza zu gana  
Hartu eta daramana ! *(bis)*

3

Ilhargiak, aintzinean.  
Behatzen daut, hor, airean.  
Ilhargi bera, ama, herrian  
Zuri beha dago, zeruan !  
Zombat uros ni, gau huntan,  
Han banintz, ilhargi hortan ! *(bis)*

4

Ama gaichoa ohera  
Orai otz joana zira ;  
Ohera... bainan ez lokartzera...  
Nigar eta nigar hurtzera !  
Nigar hoiien chukatzer  
Ahal banu jin ondora ! *(bis)*

5

Zombat aldiz, han, etchean.  
Ohera ez naiz ni joan,  
Musu bat eman gabe sekulan  
Ama gaichoari, matelan !  
Baten orde, lorietan,  
Mila banuzke, gau huntan ! *(bis)*

6

Bi urthe ! Ama maitea,  
Zuretzat ephe luzea !  
Hain maite nuen zure ilea  
Ainitz churitu othe dea ?  
Ene amaren begia,  
Nigarrez urtu zirea ? *(bis)*

7

Bainan, ez, amatto ona,  
Ez zirea Eskualduna ?  
Ez zira sopra nigar egina.  
Gelditu zira bihotzduna !...  
Altcha Jainkoaren gana  
Othoizetan samurrena ! *(bis)*

8

Jinen gira gu gerlatik,  
Jainko horrek lagundurik !  
Jinen gira, kopeta gorarik,  
Eskuak lorez ihaurririk !  
Etsaia guk suntsiturik,  
Ez da izanen gerlarik ! *(bis)*

9

Nere harma eskuetan,  
Othoizño bat ezpainetan,  
Zer gau gochoa nik deramatan  
Zurekin, ama, solasetan !  
Bihar gero, erreketan,  
Zer bihotz gora duketan ! *(bis)*

10

Ama ona, goiz-aldera,  
Orai zoaz lokartzera !  
Lo egizu, gu, harmetan gira,  
Erne gaude zuen zaintzera !...  
Gure Eskualdun Herrira  
Sekulan jinen ez dira !!! *(bis)*

J. B.

# HERRITIK nere HAURRARI

## GERLA-TOKIRA

AIREA : Uso churia, errazu...

Eskualdun Ama maiteen  
ohoretan

1

Seme maitea, goizean,  
Mezatic atheratzean,  
Zure letrañoa izaitean  
Salto banuen bihotzean !  
Zu, nigarrez.. egitean,  
Ni aldiz... irakurtzean ! (bis)

2

Ez naizela ni lokartzen,  
Derautazu izkribatzen :  
Ez dautzu Amak hori ukatzen :  
Loak ez nau ni ezagutzen ;  
Etchetik haurra urruntzen...  
Amaren loa joan zen ! (bis)

3

Nigar gochorik egiten  
Ikasia dut nik aurthen !  
Jainkoak bakarrik nau entzuten,  
Bertze nehork ez nau ikusten :  
Amak baizik ez jakiten  
Amak zer duen jasaiten ! (bis)

4

Zuk ilhargia bezala,  
Izarño bat hala hala  
Zeru ederrean badutala.  
Nehori zuk ez othoi sala ;  
Musuak, mil eta mila,  
Han emaiten ditudala. (bis)

5

Urrundu zinen phondutik,  
Sainga-ta saingaz. athetik,  
Gure chakurra erasiatik  
Ez zauku gelditu geroztik...  
Jin zarenean gerlatik,  
Janeu zaitu gutienetik. (bis)

6

Zombat aldiz keetara  
Ez naiz egotu begira :  
Noiz agertuko zen ene haurra,  
Noiz jinen ni besarkatzera !  
Gauaz ere bethi beira  
Harrabots ttikienera ! (bis)

7

Soldado bat ikus eta,  
Bihotza saltatzen zaita ;  
Ni bezembat kechu zure aita,  
Haren grina handia baita ;  
Bertzerikan ezin goaita.  
Bertze nehor ezin maíta ! (bis)

8

Mahainean jar-alkia,  
Gamberan zure ohea,  
Dilindan dagon sega handia...  
Zutaz mintzo etche guzia ;  
Heian, marrumaz, behia :  
« Norat joan den nausia ? » (bis)

9

Nere buruko ilea  
Da pochi bat churituia ;  
Bainan, bihotzez bardin gaztea  
Uste dut bethi egoitea !  
Zu ikus eta, maitea,  
Argituko zait begia ! (bis)

\*\*

10

Lurdeko Ama Birjina,  
Jesus hoin maite duzuna,  
Onhets, othoi, nere bihotz-mina,  
Ezti nere barneko grina !  
Semeetan maiteena  
Itzul, othoi, nere gana !!! (bis)

J. B.

Sempere, 1916<sup>ko</sup> Martchoan.

YBARNÉGARAY gure  
deputatu soldadoari.

Eskualdun soldadoeri.

# Gerla Handiko Kantuak

Airea : 7oeko Gerlako Kantuen airean. (Garazin : *Lasan badira kantu berriak*)

Marziale



Hi-ru hogoi e ta hamar-re-ko soldado zahar maitiak, Ba i nan zuhaurek erranik dakit,  
Ez zaitzitet nik mendatu nahi, sobera zaizte handiak ;



badirela jaunen jau-nak, Gerla huntan ditugu ikusi soldadotan handi - e - n ak.

— 2 —

Gerla handiko soldado gaitzak, zuen ongi gorosteko,  
Otxalde eta Elizamuru Koplari ziren beharke.  
Heien eta Zaldubiren orde othe nautze nahiko ?  
Bozez mila banitu gaur nere, oro nuzke zuendako.

— 3 —

Aboztaren bian, ezkila, gure Eskual-mendietan,  
Bambaka hasi zitzaunkularik, herri ehoko guzietan,  
Oro nigarrez, ichil ichila, gure etche churietan !  
Bazen, orduan, jauzi ederrik, Eskualdunen bihotzetan.

— 4 —

« Adios aita, adios ama, adios ene laguna,  
« Adios ene herri maitea, herrietan maiteena ! »  
Bihotzean ezarri ondoan gure Nausi Jesus gna,  
Lerro lerro, joan ginen oro, etsai biguinaren gana.

— 5 —

Eta gero, handik berehala, oi egun izigarriak !  
Belgikatik herrestaka heldu, gose eta egarriak ;  
Launazka elgarreri lotuak, lotuak ta lokartuak.....  
Behar bada, jaten duelakotz, lokartzen den gosetuak.

— 6 —  
 Bainen huna Buruilako goiz bat, goiz orotan ederrena,  
 Huna gure zeruko Amaren munduratzeko eguna ;  
 Huna *Joffre*, huna *Marne* ibaia, huna bitoria, huna :  
 Gure baionetan aintzinean, ihes zoan Alemana ! !

— 7 —  
 Bainen zorigaitzez, gero laster, gure soldado maitiak  
 Erreka zilotan sartu ziren, sator eginak guziak.  
 Eta nolako sator eginak ! Zer izigarrikeriak !  
*Verdunes* aipatzean, chut chuta, emaiten zaizkit ileak.

— 8 —  
 Errabietan, hilen gainetik, igaranez, Alemana  
 Burrustan heldu zaukun orroaz, Parise handia gana.  
 Ziloa tapatu behar baitzen, ahalik'ta, lasterrena,  
 Hats-hanturik harat hupatu zen soldadotan hoberena.

— 9 —  
 Gain hartara hurbiltzearekin, oi gerlarien antsia !  
 Zer burrunba, zer ihurzuria, burdinezko erauntsia !  
 Harat igan soldado gaichoa ez othe zen ehortzia ?.....  
 Chuti hadi, eta harriturik, behazak, beha, Frantzia !

— 10 —  
 Jeneral nausiak erran zuen : "*On ne passe pas ! Halte-là !*"  
 Eta manu izigarri hori atchiki zen hala hala.  
 Etsai higuinak han higatzen du, orroaz, bere ahala.....  
 Trebes emanak hantchet zinezten Frantsesez mila'ta mila.

— 11 —  
 Verdungo berri ez dakienak deus handirikan ez daki ;  
 Ematzu nahigabe guziak, ez duzu erraiten aski :  
 Gose eta egarriarekin, indarrak orori gaki.....  
 Eta halere, chichpa eskuan, soldadoak han egoki !

— 12 —  
 Zeru bat ! erranen baitzinenen Kalbarioko ihuna ;  
 Erauntsiak gainetik burrustan, zangotan basa zikina ;  
 Bellaunetarainokoa, basa, oro iretsiz zoana,  
 Gure alde aldean, askotan, jaten baitzaukun laguna !

— 13 —  
Bazterrak oro ikaragarri, oro chirehrikatuak,  
Haragi bizian bezen barna, mendieka hek irauliak ;  
Ez ikusten non finka zangoak, ez eta ere begiak,  
Oro zilo, oro zauri puska, non nahi soldado hilak.

— 14 —  
Azken Judizioko erreka hola bide da izanen.....  
Ez arbolarik, ez aldaskarik, loreño bat ez ikusten.  
Herioaren erresuma da ihunik hemen hedatzen,  
Atzo horiek eta egun hauk ...lerroan oro erortzen.

— 15 —  
Eta herioa bethi heldu, orotarik, hegaldaka,  
Gau et'egun chichtuka, orroz, garrasian, burrumbaka,  
Erhotuak bezala, kanoiak, ehunka eta milaka,  
Zilo, harri eta bulhareri, urrundik ari zafiraka.

— 16 —  
Lanbo eta khe pozoindatuek bulhar, begiak erreak,  
Zaurituak'ta zilokatuak, urtzen errechinenduak ;  
Tresna izigarri hoién kontra, ezin du deus soldadoak.....  
Ama gaiehoak ikus balitza Verduneko bere haurrak !

— 17 —  
Gibeletik harat ezin ethor den gutien laguntzarik....  
Mundua ? Baiman, hor, gibelan, othe da ere mundurik ?  
Eta, lurrarekin bat eginak, zilo betan ehortzirik,  
Frantses soldadoak han egoki, hitz bat gabe, mutaturik !

— 18 —  
Aintzin, ezker edo eskuinean, norat ari da gudua ?  
Deus bertzerikan hek ez dakite, baizen *toktan hiltzea*.  
Bere aldean erori zaión lagunak odolstatuta,  
Noiz eroriko den othe bera ?... Horra, han, bakar gogoa....

— 19 —  
Eta, geroan, goiz-alde batez, noizpeit jautsi direlarik,  
Ezin sinhetsia dute orok, hek ditezkeela bizirik...  
Ikaran eman hadi, Frantzia, ez dukek, hor, urguilurik,  
Munduak sekulan ez dik izan hoin handiko soldadorik !

— 20 —  
 Nola ez eraman bitoria, holako soldadoekin ?  
 Hegalez zallaka, bitoria, Frantzia, eman hirekin !  
 Bethidanik, gudu handietan, delakotz *suzenarekin*,  
 Jainkoak begiratu zerutik, eta eman duk gurekin.

— 21 —  
 Suizatik eta Nort-Itasora, ikaran, hor, aintzinean,  
 Etsaia, chichpak biskar gainean, gineraman azkenean ;  
 Gure *Foch* gaitzak zafratzen zuen, lehengo *Marne* ibaian,  
*Castelnau*, oldar izigarrian, saltatzera zen abian ....

— 22 —  
 Eta gero, San Martin goiz batez, oi gu ororen loria !  
 Lau urtez entzun orro handia bethetan zen eroria !  
*Clémenceau* zaharra erhotu zen, erhotu Frantses-Herria,  
 Elizan, ezkilen zalapartaz, dardarikatu dorrea.

— 23 —  
 Gora beraz Frantses soldadua, gora, bai mila'ta mila !  
 Lurren die : « *Hire aintzinean, beharbankatu behar zela !* »  
 Hiru hogoi eta hamarrean belek ebatsi hegala  
 Arranoari diok ekarri, ichuriz hire odola.

— 24 —  
 Zoin handiko zorra diotegun hil diren soldadoeri,  
 Soldado gaicho hoién artean, gure *hil Eskualduneri* !  
 Ja lehertu uhaineri esker nola lama leihorrari,  
 Hil direnen uhaineri esker, heldu gaizkok, gu, ... *ganinari*.

— 25 —  
 Azken hitza zuri, Jaungoikoa, zuri ere, Ama Ona,  
 Zueri esker bizi baigira, bizi Frantzia guena.  
 Eta hik, gerlan odol husturik, erori haizen laguna,  
 Lurrean badukek amodio, zeruan aldiz korona !!

Jean BARBIER

1920<sup>de</sup> Urartilan egina.

M. Larramendi, P. Larralde:  
Bizarduna eta bizargabea

*Le dialogue  
est une reproduction  
intégrale d'une  
joute entre Goharretche  
(Larramendi) et Pampale  
à Ustaritz - 1922*

— 56 —

## BIZARDUNA ETA BIZARGABEA

Airea : Ollande gazte, mokho fier bat.

G. Mende-mendetan Eskual herriko  
eskualdun garbi guziak  
Nahizan dira kaskoinetarik  
izan bethi bereziak.  
Hortako bethi sudur azpitik  
kendu tuzte bizarkiak.  
Nik ere berdin, eskualdun gisa,  
edeki ditut eniak.

L. Adichkidea, eskualduna niz ;  
alta ez niz bizargabe.  
Gure eskuara egoiten bada  
bihotz-mihitan errege,  
Eskualtasuna ez du itzaltzen  
bizar harro batek ere ;  
Mustatcha pollit batzuen gatik  
ez daite beraz herabe.

G. Ez dut ikusten zer den pollitik,  
sudur azpitik bi buztan...  
Legun-legunik begitartea  
nahiago dut miletan.



Arnoa, hemen gaindi, maite hugu, maite !  
Suz bai eta odolez hadiela bethe.  
Eginen duk dupetan asko irakite.  
Dupek — hago deskantsu — atchikiko hute :  
Ustaiak, guk emanik, tinkian dituzte.

*Pan, pan, pin, pan !*

Hersturan, gure gatjk, dupetan egonik,  
Arnoa ehadila, ez, samur hargatik.  
Beira hadi mendekuz gure horditzetik,  
Ezpaikinuke nahi, sobrachko edanik,  
Astelehenarekin gelditu lanetik.

*Pan, pan, pin, pan !*

Hemezortzi ehun ta hogoi ta zortzian,  
Martin zenak hautatu patroin egunean,  
Santiagoz, pesta zen gure lantegian.  
Pertsu hauk ontu ditut aserik orduan ;  
Geroztik eman ditut goserik askotan.

*Pan, pan, pin, pan !*

Ageriago baitut holache  
irriñoa ezpainetan  
Eta larrua gorri-freskorik  
nere hezur mateletan.

L. Ez dut asmatzen zer ahal duen  
hoin itsusirik mustatchak :  
Ez ditu gero hala gordetzen  
ezpainen irri-erkatchak :  
Irri guziak haren plegutan  
dira ezagut errechak :  
Bi mokoñoek zeru-alderat  
eiten baitute bakotchak.

G. Eman dezagun egia dela,  
hau ere ez dut gezurra :  
Bethi garbirik nahi denari  
sobera zaio bizarra.  
Jan edanetan gormant tchar hunek  
ebasten baitu ondarra :  
Eta ondarrak mintzearekin  
emaiten usain bat tzarra.

L. Gogorki zira, adichkidea,  
chehetasun hortaz mintzo.  
Bizar-jabea ezpalinbada  
arrunt zarpail eta lazo,  
Bere jan edan gisa onari  
kontu aski eman bezo...  
Bizar zikinik ez du ukanen  
eta hatsa duke gozo.

G. Kasu handia eginik ere  
esne hotzetik edanez,  
Bizardun den bat thonatuko da  
mustatchetan nahiketez.  
Zeren ilechki chut horietan  
esne tela, ene ustez,  
Egonen baita erdi loturik  
arrunt itsusi emanez...

L. Esne gophorra ongi atchikiz  
hori ez da ez gertatzen :  
Har gatilua bi eskuekin  
duzularik ahoratzen.  
Hor ezpaduzu sudur alderat  
sobera goiti altchatzen,  
Esne chortarik zure bizarrak  
ez du behin ere hartzen.

G. Ontsa egarri, erotik gose,  
hamikaturik bazira,  
Hoinbertze jestu ibili gabe  
juanen zira chuchenera :  
Zankako on bat hartuko duzu,  
gophorra goitik-behera ;  
Eta artetik bustituko da  
zure mustatcha ederra.

L. Nehor holache ez duzu ari,  
irakasia delarik.  
Bethi emeki artzen da eta  
deusik bustitu gaberik.

Bai ezagun da zu etzaudela  
bizardun garbi hetarik :  
Ez gaizki mintza deus jakin gabe  
zeren ez duzun bizarrik.

G. Orai, hala da, ez dut bizarrik :  
bainan izan niz soldado :  
Serjant gazterik izana ere,  
zerbait baitzen lehenago...  
Orduan bichar ekarri dizut,  
pomadaturik oraino.  
Etcherakoan okazaturik  
ebaki bainuen oro...

L. Zuk diozunaz, serjant zineno,  
mustatchak tutzu ekarri.  
Beraz bizarra aitzindarien  
daitezu ezagut-garri.  
Aitormen horrek bihotz guzia  
bozkarioz daut ezarri...  
Beraz mustatcha haueri esker  
naiz nolazpeit aitzindari...

G. Usu mustatchak itzaltzen deie  
aitzindarien muthurra.  
Bainan ez dute aitzindariak  
hori seinale bakarra.  
Gure arteko buruzagiak  
ez du ekartzen bizarra.  
Buruzagi hoi ondoan daukat :  
Herriko jaun erretora.

- L. Jaun erretorak ez ukaitea,  
ez da harritzeko hori.  
Zertako gabe egon daiteken  
orori zaiku ageri :  
Urbilagotik jarraikitzeke  
jaun Jesusen urratseri,  
Aphezek ukho egiten deie  
edergailu guzieren.
- G. Aipatzen duzun edergailua  
nahi baduzu atchiki,  
Oi atchikazu sudur azpian  
bihurkaturik eztiki.  
Bainan uste dut ilechki horrek  
emaiten duen itsuski  
Bizar gaberik nahiago dut  
begitartea iduki.
- L. Zuk arpegia nahi baduzu  
atchiki mustatchik gabe,  
Niri berdin zait, zuhau baitzira  
zure buruaren jabe.  
Bainan iduri zait egiazki  
bizar pollit batek ere  
Osoki ezar zindezazkela  
lore eder baten pare.



Barfso herriak: Ardi kontu

# Bertso Berriak

1

Ardi kontu nagola  
goatu zait atzo  
para biaituala  
dozena bat bertso  
frantzes euskaldunentzat  
komenida oso  
ez inor aserratu  
ori dala kaso.

2

Bertso oyek komeni  
dirala deritzat  
Urrugne'n jayotako  
Dongaitz'tar oyentzat  
lau anayak dauzkagu  
pelotari fintzat  
inon pare gabia  
Leon ori bintzat.

3

Lau anaya dirade  
pelotari onak  
umillak eta indar  
aundiko gizonak;  
oyek egin zituzten  
aitak eta amak  
irabazi dituzte  
onrak eta famak.

4

Emezortzi urtean  
jarri zan nagusi  
Frantziyan eziñ ziyon  
inork irabazi  
anak listuak eta  
boleua bizi  
orduana besagaña  
ziyen galerazi.

5

Juandaneke ogeita  
zortzi bat urtian  
amazazpitan jarri  
ta orañ artian  
jokatu diyotenak  
berentzat kaltian  
oi izandu da buru  
Frantziko partian.

6

Trinketietan eta  
frontoi aundiyetan  
beldur eman izandu  
paraje oyetan  
arrazoyak emanaz  
beti egiyetan;  
etzegoen bista txarra  
orren begiyetan.

7

Gorputz talla ederra  
ez da itzusiya  
errespetokua ta  
asko ikusiya  
pelota manejatzen  
ongi ikasiya  
buruz abilla eta  
joera biziya.

8

Leon gizon pizkorra  
egin zuan amak  
orañ merezi ditu  
ibilli dan tokiyan  
onrak eta famak  
eman ditu lanak  
geyenian galdu du  
orren kontra denak.

9

Orren pasarizuak  
ari naiz esaten  
lenago ezdakitenak  
ikasi dezaten  
abillenaren kontra  
korajes zan juaten  
besagaña benduta  
jokatzen ziyoten.

10

Lenge moduan dauzka  
besua ta bista;  
anketatikan ere  
diferentzi piska,  
orren berri badakit  
enteratu naiz ta,  
jaun orri trinketian  
irabazten gaizta.

11

Bi illoba badauzka  
mutiko bapuk  
bildurtzen dituztenak  
Frantziko zokuak  
iya osaba zarra  
zan bezelakuak  
berarekin pelotan  
ikasitakuak.

12

Seme bat baditu  
amasei bat urte  
aitaren arrimuan  
jokatzen du fuerte  
pelota ezagutzen  
aide eta bote,  
aita beziñ abilla  
juzgatutzen dute.

13

Dongaitz'tarrantzako  
esan ditu itz bi  
pena izango nuke  
artutzia gizki  
fameliya katetik  
olakuak zarpi  
berriz ez dira inon  
azalduko noski.



Burtso barniak: Espainiako garlar



# Bertsu berriak

I

Espainiako gerlaz nadien esplika  
Huna bertsu berriak kantuz politika  
Zer gaiti hari diru gizonak maika  
Jada bi urthe huntan bat bertziaren hilka  
Jinkoaren legean zuzenaren kontra.

II

Bere zuzenean zen gobernamendua  
Lehen nausi zirenek bozetan galdua  
Desgostuan zelakotz hango populua  
Frente Popular zuten bozetan sartua  
Kintze egiten duenak hartzen du zakua.

III

Sakatziaren ondotik jin da errefera  
Frente Popular etzen alferren gostura  
Zerendako ez utzi bertze bozetara  
Legez ez zezaketen hautsia athera  
Deziberatu dute gerla ematera.

IV

Gauza izigarria mundu huntan gerla  
Pobriaren bakantzeko asmatua dela  
Aberatsa zokotan gordeka dabila  
Erredoblatzen dute beren kapitala  
Kintalka fabrikatuz obus eta bala.

V

Nun dire emazteak haur eta zaharrak  
Pusketan chehatuak badire bakarrak  
Espakatu direnen oinaze nigarrak  
Egoitzak suntsituak galduak senarrak  
Hora Francotiarren egintza ederrak.

VI

Aleman Italiano Marokano beltza  
Burego izan dira Espainiarentza  
Hoiien gobernatzaile Franco odol hotza  
Heriotze suntsitze zombat ume churtcha  
Horra nolakoa den fasisten bihotza.

VII

Mundu guziko fasista dena bratcha bera  
Laster hel iten dute elgar laguntzera  
Gure enganatzeko gezur erratera  
Pobria herrestan dagon horientzat hobe da  
Merke jin dakioten gauza mahainera.

VIII

Gizona frango bada travaux forcés denik  
Hoik baino guziago merezi duenik  
Franco behar litake han sartu lehenik  
Segi dezan Hitlerrek eta Mussolinik  
Fandanguen emateko La Roque laugarrenik.

IX

Jinko Jaunak emanak hamar manamendu  
Bortzgarrena nola den emazue kondu  
Gaichtagina ifernuaz desafiatzen du  
Ez luke izan behar nihun barkamendu  
Gauza bera behar du hak kondenamendu.

X

Konfidentzia badut munduarendako  
Zuzentasuna egin duela nahiko  
Erresponsable dela Generala Franco  
Espainiako gerlan hil direnendako  
Sinesten ez duena ez da latetiko.

XI

Baketiar denari Alemanek gerla  
Froga Hitlerren banda lanjerosa dela  
Haren lagun hardia Franco generala  
Lagundua bai gizon bai materiala  
Legien gainetik doha ichuriz odola.

XII


Kantu hauen emaitia da Arrangoitzeko  
Eskola gutirekin kuritzen du frango  
Eskolatua banintz kargutan sartzeko  
Legiak galda netzazke pobrien argitzeko  
Ez gira kreaturak elgarren hiltzeko.

XIII

Noiz argituko zaio pobreari bichta  
Ikusiko duena sestzu den fasista  
Mundu enganatzaile faltso hipocrita  
Tipientza promesa handiek profita  
Dugun kanta goraki biba errepublika.

XIV

Huna azken bertsua hamalaugarrena  
Kondu errenda dadin inoranta dena  
Noizbeit geldi dadien pobrien اساسina  
Othoi gure buruak ez guhauk kondena  
Bozetan hauta gizon pobrientzat on dena.




Kamboko gaztearen Kantua

# Kamboko gazteriaren kantua




Bai Kambo-ar gaz-te-ak, Chu-ti gaitze-zen gu-zi-ak! ez i-zan beldurrik,



Bai, goazen bu-rua go-ra-rik, Bethi el-gar-ren la-gun, El-gar o-ho-ra de-



za-gun, gauden denak Eskual-dun e-ta fe-de-dun! Be-re ohantze-



tik cho-ri-ño-ak chichtuz A-ri du go-res-ten sor-le-ku-a... Kantuz, guk halaber gu-



re her-ri-a! Ze-ruko Nausi-ak e-man dauzku bazter e-derrak, Hari gure esker-rak!

Errepika

3

Bai, Kamboar gazteak,  
Chuti gaitzen guziak!  
Ez izan beldurrik...  
Bai, goazen burua gorarik!  
Bethi elgarren lagun,  
Elgar ohora dezagun,  
Gauden denak Eskualdun  
Eta Fededun!

Nehor ez da bera aski azkar, bertzen  
Ukaldi tzarrerri oldartzeko...  
Ezen  
-ditto ba-ten gaine-an, etche-tti-pi-tto, aintzin chu-

The second system continues the piece with the lyrics: "-ditto ba-ten gaine-an, etche-tti-pi-tto, aintzin chu-". The piano part includes a *rit.* marking above the treble staff and *mf.* markings in the piano accompaniment.

-u bat, lau haitz ondo-ren er-di-an, chakur shuru bat

The third system has the lyrics: "-u bat, lau haitz ondo-ren er-di-an, chakur shuru bat". The piano part includes *mf* markings in both the treble and bass staves.

athean, I-thurri-ño bat aldean, han biri nair ni ba-ke-an.

The fourth system concludes the piece with the lyrics: "athean, I-thurri-ño bat aldean, han biri nair ni ba-ke-an.". The piano part includes a *rit.* marking above the treble staff and *mf* markings in the piano accompaniment.



1

Ikhusten duzu goizean,  
Argia hasten denean,  
Menditto baten gainean,  
Etehe ttipitto, aintzin churi bat  
Lau haitz ondoren erdian,  
Chakhur churi bat athean,  
Ithurriño bat aldean,  
Han bizi naiz ni bakean.

2

Nahiz ez den gaztelua,  
Maite dut nik sor-lekhua  
Aiten aitek hautatua.  
Etehetik kampo zaut iduritzen  
Nombeit naizela galdua ;  
Nola han bainaiz sorthua,  
Han utziko dut mundua  
Galtzen ez badut zentzua.

3

Etchean ditut nereak,  
Akilo, haitzur, goldeak,  
Uztarri eta hedeak ;  
Jazko bihiez, ditut oraino  
Zoko guziak betheak ;  
Nola iragan urtheak  
Emaiten badu bertzeak,  
Ez gaitu hilen goseak.

4

Landako hirur behiak,  
Esnez hampatu ditiak,  
Ahatche eta ergiak,  
Bj idi handi, kopeta zuri,  
Bizkar beltz, adar handiak,  
Zikiro, bildots guriak,  
Ahuntzak eta ardiak,  
Nereak dire guziak.

5

Ez da munduan gizonik,  
Erregerik ez printzerik,  
Ni bezein urusa denik ;  
Badut andrea, badut semea,  
Badut alaba ere nik ;  
Osasun ona batetik,  
Ontsasun aski bertetik ;  
Zer behar dut gehiago nik .

6

Goizean hasiz lanean,  
Arratsa heldu denean,  
Nausi naiz mahainean,  
Gristino bat ona dut hartu  
Nik emaztea hartzean ;  
Ez du mehe egunean,  
Sarthuko uste gabean  
Chingar hezurrik eltzean.

7

Piarres ene semea  
Nahiz oraino gaztea,  
Da muthiko bat ernea ;  
Goizean goizik bazken erdira  
Badarama arthaldea ;  
Segituz ene bidea,  
Nola baitu egitea,  
Ez du galduko etchea.

8

Ene alaba Kattalin,  
Bere hameka urtheekin  
Ongi doha amarekin ;  
Begiak ditu amak bezala ,  
Zeru zola bezin urdin ;  
Uste dut, demborarekin,  
Oraiko itchurarekin,  
Andre on bat dion egin.

9

Ez dugu behar lurrean,  
Ongi bizirik etchean,  
Utzi laguna gosean :  
Ez du beharrak sekula jotzen  
Gure etcheko athean,  
Non ez duen mahainean,  
Othuntza ordu denean,  
Lekhu bat gure aldean.

10

Ene andrea Maria,  
Ez da andre bat handia,  
Bainan emazte garbia ;  
Irri batentzat badut etchean  
Nik behar dudan guzia,  
Galdegiten dut grazia,  
Dudan bezala hasia,  
Akhabatzeke bizia.

ELISSAMBOURE.

# IRUNGO PILOTA PARTIDA, 1847<sup>an</sup>

## KASKOINA

HARMONISATION  
R.P.J.A.de Donostia

Allegretto

Pi-lo-ta par-ti-da bat J-run-go he-rri-

*pp* *recita*

an, Pro-bin-tzi-a-rren e-ta Fran-tse sen ar-te-

an Jaun a-phez Baz tan dar bat zen Fran tze se-ki

*mf* *cres* *cres*

Jaun a-phez Baz-tan - dar bat zen

lan Gi-da ri Go-ber-na-dor ku-ra-ia-re-ki-

*ao* *f*

Pran-tze-se ki-lan Go-ber-na-dor ku-ra-ia-re-ki-

lan E-tho-rri-a u-rrun-dik molts o-na-re-ki

*pp*

lan

lan Bi-to-ri-a-ren bil-ha kas-koi-na-re-ki-lan

rall.

## IRUNGO PILOTA PARTIDA, 1847<sup>an</sup>

### KASKOINA

1  
Pilota partida bat, Irungo herrian,  
Probintziarren eta Frantsesen artian ;  
Jaun aphez Baztandar bat zen Frantsesekilan,  
Gidari gobernador, kuraiarekilan,  
Ethorria urrundik, molts-onarekilan,  
Bitoriaren bila « Kaskoinarekilan ».

2  
Probintzian jendia estimagarria,  
Gazteria guzia da pilotaria ;  
Orai arte bazuten bethi bitoria,  
Azpitik zadukaten Eskualdun herria,  
Bainan orai Frantses bat, guti iduria,  
Baztandar jaun batekin dute nagusia.

3  
Jaun apezaz, kaskoinaz, girade mintzatu ;  
Orai bertze lagunak, nahitut aipatu ;  
Hazpandarrak diote ederki botatu,  
Eta Uztariztarrak guziak charmatu ;  
Baztane-ta Frantzia dire koroatu,  
Eta Probintziarrak tristerik gelditu.

4  
Ez da posible, Jaunak, kasik sinhestia,  
Konfidantzia nola zuten ezarria ;  
Duroz kargaturikan mandoa ekarria,  
Garbitu nahi zuten arraia guzia,  
Bainan etcherakoan heien doloria !  
Mandoak Irunen galdu kargaren erdia.

5  
Probintziarrak ziren ongi preparatu,  
Mandoa trebaseko duroz zen kargatu ;  
Galtzeaz, duda gabe, ez ziren orhoitu ;  
Abilak dire bainan, hek ere trompatu,  
Español moneda da Frantzia frankatu,  
Mandoa etcherakoan kargak ez kolpatu.

6  
Probintziarrek zuten prekozionia,  
Berekin ekarria pertsu emailia ;  
Berendako zaukaten arras bitoria,  
Urrun zen pensatzia partida galtzia ;  
Kanturik egin bada, ez daite egia,  
Erretzen ahal dute oraiko kopia.

7  
Urgulutan zirela, ez dugu dudarik,  
Ez zuten ez pentsatzen partida galtzerik,  
Uste zuten Frantzian ez zela gizonik,  
Heien Kontra pilotan atherako zenik ;  
Jakin bezate beraz, Lapurtarren ganik,  
Probintzia ez dela munduan bakarrik.

8  
Irunen in derauku urrezko uria,  
Bainan ez baliatu hanitz Probintzia ;  
Frantziako parterat zuen ichuria,  
Aise doratu dugu Pausuko zubia,  
Aintzinetik bantatzia ez da prudentzia,  
Jaungoikoak eman daie punizionia.

9  
Bitorios balire Irunen izatu,  
Usoño bat behar zen berehala partitu,  
Frantses kasta guzia zutela garbitu,  
Miseria gorrian ginela gelditu ;  
Bainan usua zaie bidian trompatu,  
Donostia utzirik, Lapurdin da sartu.

10  
Arraio demonio ! Kaskoin trunko hori  
Bizitik bai loretik ederki duk hari !  
Egundaino holakorik ez diagu ikusi ;  
Horrekin behar diagu pilotan ikasi ;  
Frantses pikaro hoier etzaie itsusi,  
Lapurdi Probintzian pilotan nagusi !

11  
Adios, Probintziarrak, orai bagoatzi,  
Despendio sariak ditugu irabazi,  
Baldin berriz haitzeko gosturik baduzi,  
Etzaituztegu nahi errenkuran utzi ;  
Mando mula eder hori ongi karga zazi,  
Plazer duzenian gaztiga daukuzi.

XXX.

# Iruñeko Ferietan

Andantino

NEHOR et C. DUFAU

27  
26  
25  
24  
23  
22  
21  
20  
19  
18

I - ru - ñe - ko fe - ri - e - tan I - ra - gam San Fer -

17  
16  
15  
14  
13

- mi - ne - tan, E - hun zal - di ar - ri - ba - tu

12  
11  
10  
9  
8  
7

An - da - lu - zi - a - tik tro - pan; Mer - ka - tu e - der

6  
5  
4  
3  
2  
1  
0

bat zautan, Za - go - la - rik bi ler - ro - tan

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

Iruñe ko ferietan,  
Iragan San Ferminetan,  
Ehun zaldi arribatu Andaluziatik tropan ;  
Merkatu eder bat zauntan,  
Zagolarik bi lerrotan.

Bat zen pikar'ta zuria,  
Bota bainion begia :  
Andaluz batek egin daut bi untz urheren galdia  
Eskain'orduko erdia,  
« Harzak, hiria duk zaldia... »

Han nintzan harrapatua,  
Aginduaz dolutua,  
Urruntzeko izan banu hirur arditen lekua..  
Gizonez inguratua,  
Iduri preso hartua!

Zeruko Jinko Jaun ona,  
Zerek ekharri nu huna!  
Andaluz bat zazpi urthez presondegian egona  
Laburzki mintzo zauntana :  
« Konda niri hitzemaña!! »

— « Jauna nahi dut pagatu,  
Bainan lehenik miatu ».  
— « Zaldiaren miatzeko astirik orai ez duzu  
Lenik soma konda zazu,  
Gero miaturen duzu ».

Nik pagatu-ta kondua,  
Eztitzen hasi mundua ;  
Krachturirik hartu nuen delako behor maingua  
Emanik behar dirua,  
Hustu bainuen lekua.

Utzirik bide ederra,  
Hartu dut larre bazterra :  
Zaldia nuen desperra, begi batetik okerra,  
Maiz jotzen zautan kitarra,  
Eztularekin uzkerra!!

Belategiko bentetan,  
Pasatu nintzen andetan ;  
Nolazpeit arribaturik Urdazuriko errekan  
Sartu baitzautan phartetan,  
Athera nuen kordetan!

Nonbeitikan goizaldera,  
Arribatu naiz etchera ;  
Anderea jin zerautan argiarekin athera,  
Jarri behorrari beira,  
Ez baitzen kontent sobera!

— « Horiche da behor tcharra  
Eta bertzalde chaharra!  
Hortan gastatu dautazu familiako beharra.  
Sal nintzazke sos batera  
Zaldia eta senharra! »

— « Zaude ichilik andria,  
Othoi emazu bakia ;  
Beliak et'arranuak bortutik daude goardia;  
Hil azu beraz argia,  
Hunat ez ditzen abia. »

— « Zaude ichilik zu ere  
Holakorik erran gabe ;  
Belarik ez arranorik hemen ez baita batere  
Segur eginak baikire  
Estofa on baten jabe! »

Plazan zutenian ikusi,  
Nahi zaundaten erosi :  
Tratuan baikinen hasi, etzuten emaiten aski,  
Ez dut ez eskutik utzi,  
Ume bat behar daut hazi.

Heldu den ume berria,  
Behor edo zamaria,  
(Eginen baitut goardia denez ama iduria,  
Balinba aski handia!)  
Ai zer primako zaldia!

# ITHURRIRA GOIZEAN

Musique de NÉHOR et DUFAU

Harmonisation du R.P.J.A. de DONOSTIA

ANDANTINO  
DOUCEMENT, SANS CRIER

Goi — ze — angoi jei — ki — rik ar —

The first system of music features a vocal line on a treble clef staff and a piano accompaniment on grand staff (treble and bass clefs). The vocal line begins with a whole note rest, followed by a series of quarter notes. The piano accompaniment consists of a steady eighth-note pattern in the right hand and a bass line in the left hand. The tempo and dynamics are marked as 'ANDANTINO DOUCEMENT, SANS CRIER' and 'pp'.

gi — a ba — ño len U — re — ra joan nin — du — zun pe —

The second system continues the vocal line and piano accompaniment. The vocal line has a whole note rest followed by quarter notes. The piano accompaniment features a more complex texture with triplets and sixteenth notes in the right hand. The dynamics remain 'pp'.

ga — rra har — tu — rik Tra-le — ra la la ra Tra-le-ra-le —

The third system continues the vocal line and piano accompaniment. The vocal line has a whole note rest followed by quarter notes. The piano accompaniment features a more complex texture with triplets and sixteenth notes in the right hand. The dynamics are marked as 'p' and 'Poco piu mosso bien rythme et p'.

ra la la ra Tra-le-ra-le — ra le-ra le — ral U —

The fourth system continues the vocal line and piano accompaniment. The vocal line has a whole note rest followed by quarter notes. The piano accompaniment features a more complex texture with triplets and sixteenth notes in the right hand. The dynamics are marked as 'p'.

re - ra joan nin - du - - zun pe ga - rra har - tu - rik.

## ITHURRIRA GOIZEAN

1

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,  
Urera joan ninduzun, pegarra harturik,  
Tra lera, la la la...

2

Jaun chapeldun gazte bat jin zautan ondotik :  
« Heia nahi nuenez urera lagunik ? »

3

— Nik : « Ez nuela nahi urera lagunik,  
Aita beha zagola salako leihotik. »

4

Aita beha zagola, ezetz-erran gatik,  
Pegarra joan zerautan, besotik harturik.

5

Urera ginenian, ez ginen egarsu;  
Galdegin zautan ere : « Zombat urthe tutzu ? »

6

— « Hamasei... Hamazazpi orain ez konplitu :  
Zurekin ezkontzeko, gazteegi nuzu. »

7

Etcherat itzultzeko, nik dutan beldurra!  
Ez jakin nola pentsa amari gezurra!

8

— « Arreba, nahi duzu nik erakuts zuri,  
Etcherat ethortzean zer erran amari?... »

9

« Urtcho churi pollit bat, gabaz dabilana,  
Hark ura zikindurik, egotu naiz, ama! »

10

Dakigunaz geroztik zer erran amari,  
Dugun pegarra pausa, oneski liberti!

XXX.


*Gregambur*

# Itsua eta Sastrea


Andante

NEHOR et C. DUFAU


Es - Kual - dum bat zen i - tou e - ta ber - tou - la - ri , A -



- thez a - the za - bi - lan i - lo - ba gi - da - ri ; Soi -



- ne - ko e - ta di - ru , jan - ha - ri , e - da - ri , Na -



sai - ki bil - tren zu - ten ber - tou eman sari .





1

Eskualdun bat zen itsu eta bersulari ;  
Athez athe zabilan, iloba gidari ;  
Soineko eta diru, janhari, edari,  
Nasaiki biltzen zuten, bersu eman sari.

2

Zuhur gisa baitzuten sos guti chahutzen,  
Piko baten azpian eltze bat zaukaten ;  
Hiru ehun libera harat bildu zuten . . . .  
Bainan gaichtagin batek ebatsi zioten.

3

Bere gorde lekutik galdurik eltzea,  
Bat zagon hatsperenka, nigarrez bertzea.  
Ilobak erran zion : « Osaba maitea,  
Horra zer den kampoan gauzen gordatzea ! »

4

— « Azkeneko aldian hemen ginelarik,  
Ikusi gaituztela ez diat dudarik ».  
— « Bai, *sastrea* heldu zen, pegarra betherik,  
Behatu zuen guri, bainan urrunetik. »

5

— « Iloba gida nezak sastrearen gana,  
Adi dezan bersu bat itsuak emana.  
Gure eltzea badu harek eremana,  
Bazakiat nik hura zer gisaz engana ».

6

Ilobak erran zion aphil beharrira :  
« Sastrearen etcherat orai heltzen gira,  
Irri faltsuan dago leihotik begira,  
Ez erran hitz gaichtorik, zuhurra bazira ».

7

— « Iloba gida nezak arthoski bidean,  
Zerbait daiat utziko, azken egunean :  
Ehun luis baitiat piko baten pean,  
Bertze ehun emanen, bihar, han berean ».

8

Sastreak bere baitan : « Itsuak etzakik  
Hartuak ditudala horren sosak, handik ;  
Eltze hau, diruekin, berriz han emanik,  
Bertze hiru ehunak bilduko tiat nik ».

9

Sastrearen agintza balios izan zen :  
Biharamun goizeko, eltzea han zuten !  
Ilobak erran zion : « Hemen dugu, hemen !  
Oi zoin ongi sastrea enganatua den ! »

10

— « Ene *moltsan* behar diat dirua ezarri.  
Lurpean, hola hola, utzak eltze hori,  
Eta emok barnean bortz edo sei harri,  
Sastreak aski pisu altcha dezan sarri ».

11

Itsuak sastreari : « Errak, to, egia,  
Atzo bezala dukan arrai arpegia,  
Ala trichterik dagon, doluan jarria,  
Dirua erain eta . . . bildurik harria ? »


12

— « Itsu harpagon, zikoitz, laido-emailea,  
Habil, eta ez kolpa ene ohorea !  
Dirudun bahaiz ere, eta ni gabea,  
Baduk aski zorigaitz hire ilhumbea ! »

13

— « Ni itsu, ilhumbean, hi, sastre erromes . . .  
Dezagun lagun elgar biek ditugunez :  
Nik egiten haut jabe ene ontasunez,  
Okhertu nahi banauk hire begi batez . . . »

P. DIBARRART.



Adagio

# Jaun Goikoari

NEHOR et C. DUFAU

Jainko Jauna, zuk e-gi nak, di ra mendi handi-e-nak,



*mf. p*




ze-ru-a hunki-tze raino gora altzatzen di-re-nak,



*p*



Mendien zolan, be-thi samurrik le-hertzen di-ren u-hai-nak;



*crescendo mf*



Nork egin di-tu e-ta nun se-Ku-tan ho-la ko la nak?



*p*



1

Jainko Jauna, zuk eginak dira mendi handienak,  
Zerua hunkitzeraino gora altchatzen direnak,  
Mendien zolan, bethi samurrik, lehertzen diren uhainak ;  
Nork egin ditu eta nun sekulan holako lanak ?

2

Mendi punttan agertzen den iguzki handi ederra,  
Ihunabar guzietan jalitzen den arth'izarra,  
Itsas gainean zazpi kolore altchatzen den orz'adarra,  
Zuk dituzu aurthikiak, zuhaurek nahi tokira.

3

Gazlena, haitz'ta phagoak, oihanetan landatuak,  
Gure lur eskualdunetan zuk zerutik hostatuak,  
Chutik dagozi, bethi ederrik, oro zahar-okhituak,  
Erroak ifernuraino barna kurumilkatuak.

4

Phentze polliten erditik kantuz doan ithurria,  
Ur bazterreko sasia, leiratuz dagon choria,  
Sorhopiletan churi'ta gorri luhatzuz dohan lorea,  
Obra miresgarri hori ez dea oro zurea ?

5

Kampoetan zabaltzen den ogi eder urrezkoa,  
Harrien artetik irriz ageri mahats molkoa,  
Nork erein ditu, zeru gainetik, baizen'ta zuk, Jaun-Goikoa ?  
Ahurra zabalduz duzu hedatu zure eskua .

6

Arranoak bortuetan, kaskoetan bas-ahuntzak,  
Oihan-zolan ihiziek, arbola beltzean huntzak,  
Desertuetan orroaz dauden lehoinak, tigreak, hartzak,  
Gora erraiten dauzkute munduan zuk utzi haizak.

7

Bas-ihizi handietan balinbazaitut laudatzen,  
Gauza ttipi ttipietan ez zaitut ez nik mendratzen :  
Ottia eta chinaurritoa eder zaizkit iduritzen,  
Lehoin azkarrak bezembat erleak zaitu handitzen.

8

Chimichtak zeru guzia noiz baitu ere urratzen,  
Zure hasarre sailduaz berehala naiz orhoitzen ;  
Barrukietan kabalak dira marrumaka ikharatzen,  
Eta supazter chokoan lazturikan gu zeinatzen.

9

Gogoetan nagolarik, gaua horra nun den jautsi,  
Izarrek zeru beltzean bederazka phizten hasi :  
Jainko onaren begi argiak zarezte la dut ikasi . . .  
*Mahuma* urrun zazue, igorrazue ihesi !

10

Gauza orotan zarena, maite zaitugu orotan.  
Jainko on eta handia, atchik gaitzazu zu-baithan !  
Itsas gainean hi mariñela, hi artzaina mendietan,  
Jainko handi hortaz orhoit ; ez ahantz zuen onetan !

J. BARBIER.

*Jugaburu*

# Kandela Dantza,

# Kadira Dantza

Assez lent.

Mélodie de N'ehor et C. Dufau.



Tan, tan, tan tan, Ra-pe - ta - plan ! Art-zain za - har-rak ta-fer -  
Plus rapide



nan : Hor-di gi - ra Ez, ez gi-ra ! Hor-di gi-ra Ez, ez gi-ra ;



Ba-so-ak, det - za - gun bi-ra, Ba-so-ak det - za-gun bi-ra !



Jo-ho-ho, jo-ho-ho, jo-ho-ho ! Ba-so-ak de - tza-gun bi - ra !



- ra !

— 2 —

— 3 —

Tan, tan, tan, tan,

Tan, tan, tan, tan,

Rapetaplan !

Rapetaplan !

Nork jotzen derauku bortan ?

Uria hari karrikan :

Beharbada

Gauden hemen

Otsoa hor da, (bis)

Arno hunen (bis)

Nihor ez gaiten athera ! (bis)

Gostu onean edaten ! (bis)

Johoho, johoho, johoho ! (bis)

Johoho, johoho, johoho ! (bis)

Nihor ez gaiten athera ! (bis)

Gostu onean edaten ! (bis)

— 4 —

Tan, tan, tan, tan,  
 Rapetaplan !  
 Babazuza tarapatan :  
 Dugun edan } (bis)  
 Hamarretan ! }  
 Aberats gira gau huntan ! (bis)  
 Johoho, johoho, johoho ! (bis)  
 Aberats gira gau huntan ! (bis)

— 5 —

Tan, tan, tan, tan,  
 Rapetaplan !  
 Ez dut minik sabelean !  
 Nahi nuke } (bis)  
 Ehun urthe }  
 Hola egon banindaite ! (bis)  
 Johoho, johoho, johoho ! (bis)  
 Hola egon banindaite ! (bis)

— 6 —

Tan, tan, tan, tan,  
 Rapetaplan !  
 Amoric ez da botoilan ;  
 Ostalera, } (bis)  
 Ez ikhara ; }  
 Arnoko bethi sos bada ! (bis)  
 Johoho, johoho, johoho ! (bis)  
 Arnoko bethi sos bada ! (bis)

— 7 —

Tan, tan, tan, tan,  
 Rapetaplan !  
 Zer othe dut begietan ?  
 Non da borta ? } (bis)  
 Airatu da..... }  
 Mahaina dantzan dabila ! (bis)  
 Johoho, johoho, johoho ! (bis)  
 Mahaina dantzan dabila ! (bis)

— 8 —

Tan, tan, tan, tan,  
 Rapetaplan !  
 Zangoek amor bidean !  
 Hanketan min ! } (bis)  
 Gaizo Martin, }  
 Urhatsik ez dirok egin ! (bis)  
 Johoho, johoho, johoho ! (bis)  
 Urhatsik ez dirok egin ! (bis)

— 9 —

Tan, tan, tan, tan,  
 Rapetaplan !  
 Eri tchar naiz, hiltzekotan !  
 Sendo nintzan, } (bis)  
 Aski edan }  
 Izan banu gau hunetan ! (bis)  
 Johoho, johoho, johoho ! (bis)  
 Izan banu gau hunetan ! (bis)  
 X. X. X.

N. B. Azkue (*Cançonero*, II, n° 58) donne, d'après le Dr. Constantin, une mélodie toute différente pour les premières paroles de ces couplets. Les derniers vers n'y trouvent pas de place. Nous donnerons, quelque jour, cette mélodie qui se retrouve aussi à Ustaritz.

Pour nous, nous avons été heureux de notre trouvaille. Le Chirula mène la danse sur les notes aiguës. Pour la *danse à la Chandelle*, on commence par tourner gravement autour de la chandelle piquée au sol. Puis, on s'arrête et de plus en plus vite, autour de la même chandelle, on tourne un pied d'abord, l'autre ensuite. Et le défilé, se poursuit ainsi de tous les danseurs.

Pour la *danse à la Chaise*, les mouvements en S imitent le glissement du serpent entre les chaises, lentement d'abord, de plus en plus vite ensuite.

Mélodie de:  
Néhor et Dufau

# LOREA

Harmonisation du:  
R.P. J. A. de Donostia

*que sam...*

*Andantino*      *doucement*

Al-fe-re-tan haitz

*pp*

so-tzen, oi lo-re mai-te-a, Ba-ra-tze baz-te-

*très lié*

re-tan, humil-ki gor-de a Ba-fa-da go-cho-

*mf*

e-nak haube-thi sa-la-tzen Kir'e-goi-tza ba-

*p*

27  
26  
25  
24  
23  
22  
21  
20  
19  
18  
17  
16  
15  
14  
13  
12  
11  
10  
9  
8  
7  
6  
5  
4  
3  
2  
1  
0

*rall.*

ko - tchak e - mecki Kau - si - zen.

*rall.*

# LOREA (La Violette)

AIREA : Lili bat....

1

Alferretan haiz sortzen, oi lore maitea,  
Baratze bazterretan, humilki gordea.  
Bafada gochoenak hau bethi salatzen;  
Hir'egoitza bakotchak errechki Kausitzen.

2

Oi erradak zertako haizen hoin herabe?  
Eder duk modestia, bainan gaindi gabe.  
Berthutean orobat, bertzetan bezala,  
Jakizak, ez badakik, negurri badela.

3

Bertze lore guziak, sorthu bezain sarri,  
Arrai, dantzan bizi tuk, zefir soinulari :  
Hi aldiz belharpean, burua behera,  
Alhargun bat iduri, lurrari begira.

4

Hire lagunek haute beren gana deitzen,  
Zeren hauten guziek bihotzez maitatzen.  
Altcha beraz lurretik, ez ukh' ethorkia!  
Arrosaren aldean duk hire tokia.

DOCTEUR LARRALDE,  
Concours de 1862.

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

# Lili eder bat badut nik

Méلودie de Nehor et C. Dufau.



Li - li e - der bat ba - dut nik, As - pal - di be.



gich - ta - tu - rik; Bai - nan ez nai - te men - tu - ra



ha - ren es - ku - rat har - tze - ra; Ba - na - ki zer



den lan - je - ra, Joan nin - da - ki - o - al - de - ra.

— 2 —

Lili ederra, behazu ;

Maite nauzunez errazu !

Zure begiek bihotza barna dautate kolpatu ;

Kolpe huntarik badut nik

Granganatzeko hirrisku.



— 138 —

— 3 —

— Pena nikezu, ni gatik  
Balimbazindu malurik ;  
Ez nuke uste ene begiek eman dautzuten kolperik ;  
Ez duzu beraz lanjerik.....  
Etzira hilen hortarik.

— 4 —

— Mintzo zirade polliki,  
Polliki eta tendreki.  
Bisitaño bat nikezu zu ganat nahi laburzki ;  
Desira badut segurki,  
Bazinezadat permeti.

— 5 —

— Permeti niro, maitia,  
Ez dut hain bihotz dorphia ;  
Bainan, lehenik, nahi dut jakin zure gogoko berria.....  
Zu ene ganat jitziaz  
Estona laite mundia !

— 6 —

— Ez ahal nuzu printzia,  
Ez et'Aitoren semia !  
Hola nehoren estonatzeko ez da sujet bat handia ;  
Zuhaur zirade chimplia,  
Ilusionez bethia.

— 7 —

— Badakit chimple nizela ;  
Hori segurki hala da ;  
Iduritzen zaut atsolutoki ezagutzetan zirela ;  
Nik ere badut fortuna ;  
Bainan ez dut zuk emana.

X. X. X.

N.-B. — Nous croyons que c'est là la version courante, avec ses doubles croches bien frappées, et ses points d'orgue arbitraires, sans les fantaisies à la Mozart que l'on trouve sur certains cahiers, pour les premières et dernières mesures de la majeure, reprises ensuite telles quelles pour la finale.

Andantino

# Neure Dotea

NEHOR et C. DUBAU

27  
26  
25  
24  
23  
22  
21  
20  
19  
18  
17

Ai-tak e-man daut do-te-a, Neu-re-

*mf*

Detailed description: This system contains the first two staves of music. The top staff is a vocal line in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 2/4 time signature. The bottom staff is a piano accompaniment in bass clef with the same key signature and time signature. The lyrics 'Ai-tak e-man daut do-te-a, Neu-re-' are written below the vocal staff. A mezzo-forte (*mf*) dynamic marking is placed above the piano staff.

16  
15  
14  
13  
12

-a, neu-re-a: Ur-de-ño bat be-re u-

*p*

Detailed description: This system contains the next two staves of music. The vocal line continues with the lyrics '-a, neu-re-a: Ur-de-ño bat be-re u-'. A piano (*p*) dynamic marking is placed above the piano staff. The piano accompaniment continues with chords and moving lines.

11  
10  
9  
8  
7

-me-kin, oi-lo ko-lo-ka bere chito-e-kin, Ti-pu-la

Detailed description: This system contains the third two staves of music. The vocal line has the lyrics '-me-kin, oi-lo ko-lo-ka bere chito-e-kin, Ti-pu-la'. The piano accompaniment features a steady rhythmic accompaniment.

6  
5  
4  
3  
2  
1  
0

Kor-da hei-e-kin, Ti-pu-la Kor-da hei-e-kin!

Detailed description: This system contains the final two staves of music on the page. The vocal line concludes with the lyrics 'Kor-da hei-e-kin, Ti-pu-la Kor-da hei-e-kin!'. The piano accompaniment ends with a final chord.

— 1 —

*Aitak eman daut dotea,*

*Neurea, neurea : (bis)*

*Urdeño bat bere umekin,*

*Oilo Koloka bere chitoekin,*

*Tipula korda beiekin,*

*Tipula korda beiekin !*

— 2 —

*Otsoak jan daut urdea,*

*Neurea, Neurea ! (bis)*

*Acheriak oilo koloka,*

*Garratoinak tipula korda,*

*Adios neure dotea !*

*Adios neure dotea !*

X. X. X.



# O Jinko Handia, zu zira

(Pastorale Souletine d'ABRAHAM)

NEHOR et C. DUFAU

Lent

27  
26  
25  
24  
23  
22  
21  
20  
19  
18  
17

O jin-ko handi - a , zu zi - ra

*mf.*

Detailed description: This system contains the first two staves of music. The top staff is a vocal line in treble clef with a 2/4 time signature. The lyrics are "O jin-ko handi - a , zu zi - ra". The bottom staff is a piano accompaniment in bass clef, starting with a 7 in the bass line. The music is marked *mf.* (mezzo-forte).

16  
15  
14  
13  
12

o - ro-ren kre-a - za - ti - a , e -

*p* *mf*

Detailed description: This system contains the next two staves. The vocal line continues with the lyrics "o - ro-ren kre-a - za - ti - a , e -". The piano accompaniment features a *p* (piano) dynamic in the first measure and *mf* (mezzo-forte) in the last measure.

11  
10  
9  
8  
7

- za-zu, o-thoi, ni - ta - ra zou-

*p*

Detailed description: This system contains the third and fourth staves. The vocal line continues with the lyrics "- za-zu, o-thoi, ni - ta - ra zou-". The piano accompaniment is marked *p* (piano) in the final measure.

6  
5  
4  
3  
2  
1  
0

- re grazi-a ex-ti - a .

Detailed description: This system contains the final two staves. The vocal line concludes with the lyrics "- re grazi-a ex-ti - a .". The piano accompaniment ends with a double bar line.

(Abrahamek Haranerik Chandorat (?) joiteko)

I  
O Jinko handia, zu zira                      Zutarik dependitzen duzu  
    Ororen krezalia,                      ororen kountentamentia,  
Ezazu, othoi, nitara                      Ezi ene indar tchipiek  
    zoure grazia ezta.                      deus eztiñie balia.

(Loth bere iloba presountegitik libratu ondoan.)

II  
Jinko handi loriousa,                      Mirakullu egiten duzu  
    ororen krezalia,                      plazer duzun aldi oroz,  
Bethi zuk plazer duzuna                      Khantatu nahi dizugu,  
    izan bedi kounplitia.                      Jauna, egun boztarioz.  
    Gitian algarreki  
    orai bertan erretira,  
    Eta joan Sodomako  
    erregiaren edireitera.

(Ainguriak abertitu zianian haurra ukhenen ziala.)

III  
Ehun ourthetako gizonak                      Eta 90 urthetan,  
    othian possible lizatia,                      Sara ene emaztia,  
Adin hartan, seme baten                      Possible izanen deia  
    harek injendreatzia ? (1º)                      seme baten sortzia ?

(Sodomak eta Gamorrek erre behar ziala,  
Jinkoak Abrahami erran zeionian )  
*Numquid perdes justum cum impio ?*

IV  
Jauna balimbada                      Ah ! Jaun handia, zu  
    hiri haietan 50 justo,                      othian khechatu zirade,  
Othian hanko abitantak                      Eta hiri eder haiek  
    galduren direia oro ?                      arren finitu behar dizie ?  
    O Sodoma eta Gomorra,  
    herri kourrounpitiak,  
    Ziek ere ukhenen tuzie  
    Jinkoaren azote kolpiak.

(Abrahamek, Izaaqui lephoa mouztou behar  
zeionian, libratu zialakoz, Jinko hounari :)

V  
Jauna, zuk ikhousi duzu                      Nihaur errezebi nezazu  
    ene boronthatia,                      zoureki bake handian,  
Badakizu noula nian                      Laid'ahal zitzadan bethi  
    gaiza hori prestatia.                      eternitate guzian.  
Ene semiaren ikhoustez                      Adio, mundia, adio,  
    mundu hountan bizirik,                      Korrupzioez bethia ;  
Ez zeneitan emaiten ahal                      Ahatzerazi izadazut,  
    phaku ederragorik.                      O Jinko krezalia.

(Error hilik).

1º Enjendreatzia ! engendrer !... Oh ! les pauvres puristes, passez vite !...

N.-B. — A l'obligeance de M. l'abbé Hirigoyen, curé de Chéaute, nous devons et ces couplets et cette version musicale. Il les tient lui-même « de son paroissien et ami HEGUAPHAL, ancien Régent de pastorales. » On ne pouvait puiser à meilleure source, on le voit.  
Cet air nous devons l'ajouter — constitué aujourd'hui l'Angelus Souletin : *Zelutik jink ainguriak* qui comprend une syllabe de plus à la 3<sup>e</sup> ligne, nécessitant ainsi la suppression de l'une des dix boucles écrites pour la Pastorale, sur plusieurs couplets tout au moins, la facture du vers n'étant pas toujours régulière.

# PILOTARIAK

Mélodie de Nehor et C. Dufau.




Pi - lo - tak o - ho - re du Es - kual herri - e - tan, ze -



ren den e - der - re - na jo - ko guzi - e - tan : Es - kualdunak, gaz -



te - tik, pi - lo - ta - plazetan, A - ger - tzen du ba - du - en o -



do - lik zai - ne - tan.

1

Pilotak ohore du  
Eskual herrietan,  
Zeren den ederrena  
joko guzietan :  
Eskualdunak gaztetik,  
pilota-plazetan,  
Agertzen du baduen  
odolik zainetan.

2

Lehenko pilotari  
handien izenak  
Espantutan gintuzke  
erran behar denak ;  
Oraiko gizon gazte  
deus zainik dutenak  
Oro ernaraz detzan  
heien aiphamenak.

3

Perkain eta Azantza,  
zer pilotariak !  
Elgarren bethekoak,  
joile bihurriak.  
Ikustekoak ziren  
esku huska biak,  
Chichtuz zohazinean  
hoien ukhaldiak.

4

Bai besain, bai besazpi,  
bai pumpa lasterrak,  
Oro zituen eder  
Kurutchet Ezkerrak,  
Domingo Ezpeletar  
zafrari supherrak  
Harrituak zaduzkan  
hark ere bazterrak,

5

Jandarme 'Betiri'ta  
Heraizko Martin,  
Bi Soldadueneko  
osab'ilibekin ;  
Ibar'eta Echkanda  
Duronearekin,  
Eskuz bai eskularruz  
oro ziren berdin.

6

Sustun Itsasun eta  
Zuraiden Bettiri,  
Zoin gehiago ziren  
erreferan ari.  
Onddore-ta Puttiko  
eta Franchistegi  
Rumebarekin botan  
ziren lau piklari.

7

Kaskoinak, eskularruz,  
Kaskaka, chirrichtan,  
Pilota nora nahi  
zabilkan chimichtan ;  
Jokoz bezenbat kaskoz,  
munduaren bichtan,  
Nekhez agerturen da  
haren parerikan.

8

Berrogoi-ta-zazpiko  
Irungo partida...  
Sekulan halakorik  
nun ikusiko da !  
Kaskoinaren trunkoa  
ez zaitela bira...  
Hark eman zituen  
guziak azpira.

9

Kaskoinaren denboran  
baziren hainbertze !  
Lopetegi, Gamio,  
Senjan, Hauziartze,  
Tripero, Kandelero,  
Ottarre, Goietche,  
Harriaga, Norberto,  
Larrondo, Bizintche.

10

Gero Espainiatik,  
guri nausitzera,  
Melchor, Antsa, Mañuel,  
zitzaizkun athera.  
Horien joa ez zen  
guk usatu bera ;  
Guante luzeaz zohan  
atchik eta fuera.

11

Aichiki joko hori  
laster ikhasirik,  
Frantsesak ez zagozken  
ez lo, ez geldirik.  
Mattiu Aheztarrak,  
gazterik hasirik,  
Españolak zituen  
iduki hezik.

12

Mattiuri bertze hauk  
zitzaizkon jarreiki :  
Bere hiru anaiak,  
gazteena Betti ;  
Gregorio, Leitzelar,  
Orgambide, Halty ;  
Bi Eizartze, Larralde,  
Chantrea gaindizki.

13

Eskularrua utziz,  
arte hortan, oro  
Chichteraz hasi ziren  
nork jo urrunago.  
Jo urrun horren leia  
chuchenean dago,  
Eta hurbiletik du  
indar gehiago.

14

Bidaur, hiru Larrondo,  
Chilhar eta Jatsa :  
Lau gathu, acheri bat,  
seigarrena hartza.  
Seiek dute jokoa  
murriz eta gaitza...  
Damurik chahartzeak  
oro geramatza.

15

Berterretche, Patzola  
eta Abadia....  
Sakhatik da bihurri  
hoien ukhaldia.  
Ottarre, Belekabe,  
Ziki plekaria....  
Plazarat agertzeko  
oi ! zer gazteria !

16

Pilotari chaharrak  
joaiten has orduko,  
Berriak dire bethi  
ondotik helduko.  
Eskualherrian bada  
bethiko muthiko,  
Ohore hoi baitute  
chutik idukiko.

17

Saratar hoiek dire  
sortzez pilotari.  
Hazparden ere hautak  
badire noiz-nahi.  
Ezpeletar, Khamboarrak  
zirenean ari,  
Hek ere segur lehen  
bazuten behari.

18

Plaza bat izaiki'ta  
pilotaririk ez ;  
Asko herritan hortaz  
dagode ahalkez.  
Eskualdun aztureri  
ukho hoi egitez,  
Eskualduna da hola  
Kaskointzen, nahi-t'ez.

19

Igande'ta bestetan,  
ofizioz goiti,  
Pilota partida bat  
behar laite bethi.  
Hartan herriko seme  
hoberen zombeiti  
Zor zaie agertzea  
guziz ohorezki.

20

Askotan eder zaiku  
plekako jokoa,  
Trinket partidatto bat,  
orobat lachoa...  
Bego hargatik nausi  
errebotekoa ;  
Pilotako legea  
hartan da osoa.

21

Gaztetik ez denean  
pleka beizik hartzen,  
Pareta hari joka  
besoa da galtzen ;  
Bichta eta indarrak  
guti han largatzen,  
Zabaleko joari  
nekhez gero jartzen.

22

Ez du bere parerik  
errebot zabalak ;  
Pilotak, airatzeko,  
han ditu hegalak ;  
Botak bai erreferak,  
marrak bai gibelak,  
Han dituzte agertzen  
nork bere ahalak,

23

Pik arrasak ez badu  
hiltzen errefera,  
Errebotaren joa  
doha urrunera.  
Paso aldekoak du  
bihurtzen barnera,  
Ahalaz chacha edo  
kintze egitera.

24

Bainan erne baitago  
errebotlaria,  
Zolak igorri joan  
du bere loria.  
Errechacharieri  
orobat guardia ;  
Besoa dute zalu  
bai eta begia.

25

Butariaren joko  
latz eta borthitza....  
Maiz horren eskuan da  
partidaren giltza.  
Paso marrako edo  
arte jo murrizta....  
Kintze gudukatuan  
hark du azken hitza.

26

*Kintze, trente, kuarenta,*  
*Joko* da laugarren ;  
Hoi en artean zenbat  
gora behera den !  
Erreferaria da  
beldur arraiaren,  
Eta kuarentaduna  
ados jaustearen.

27

Pilota partidetan  
hau ikusten dugu :  
Ez dela aski joa  
handi ez mukurua ;  
Gehienik duenak  
begi eta buru,  
Kintze irabazteko  
maiz joa chuhur du.

28

Oro plazarat bilduz,  
hantchet beha gaude.  
Bortz bortzi ari dire  
bi gison aralde,  
Zoinek jo chuchenenik,  
bizi edo lore.  
Irabazleak gero  
han du han ohore !

29

Eguerdik jotzen badu  
partida artean,  
Eskualdunak zer garen  
ezagun gare han :  
Buru has eta chutik,  
denak othoitzean,  
Gu baino gorago bat  
baitugu gainean.

30

Pilota zoin den joko  
ohoragarria,  
Ongi dakiena da  
Musde Abadia.  
Gazteak pilotara  
ditezten lehia,  
Hark ematen diote  
bermatze saria.

31

Saridun partidetan,  
begira hargatik,  
Jukutria gaichto bat  
guri egitetik !  
Pilotan ari dena  
sari horren gatik,  
Zinez artzen ez bada,  
dohala bichtatik !

32

Barne edo zokhotan  
dagon gazteari  
Trufa egin dezogun,  
zeren den hoin nagi.  
Kaskoien jostetetan  
gostu badu ari,  
Ez dela Eskualduna  
aise du ageri.

33

Kampo aro ez bada,  
hortakotz barnean,  
Imbido-ta hordago,  
joka bai musean.  
Orduan da arnoa  
gocho mahainean,  
Guziz irabazirik  
edaten denean.

ZALDUBY-



*guzamburu*

# SALUT à GARAZI

par un ZIBERUTAR

(Recueilli et harmonisé par le P. DONOSTIA)

(Chanté par Haramburu, maison Sagardoy, Sauguis - S' Etienne)

Lent noble

Ho-rra gi-tza-gi-zi-e e-

8<sup>a</sup> loco 8<sup>a</sup> loco 8<sup>a</sup> loco

ppp doux et enveloppant

2 Ped. toujours

gun Zi-be-ru-ko bost dantza-ri Go-go hu-nez ja-rrai-ki gi-

8<sup>a</sup> loco 8<sup>a</sup> loco

suivez la voix

ra goiz i-za-rra-ren galtu-a-ri Zi-en Kon-ten-taraz te-

suivez la voix

ko na-hi gi-na te-ke a-ri Gu-re a-

ha-la tti-pia da ba-na de-naz zi-ren zer-bi-tza-ri.

pp

ppp

8va...

Cette belle mélodie est une variante de celle que Ch. BORDES publia avec les paroles  
 " Arranvak bortietan " Cfr- La ( Tradition Basque )

I

Horra gitzagizie egun Ziberuko bost dantzari.  
 Gogo hunez jarraiki gira goiz izarraren galtuari.  
 Zien kontentazteko nahi ginateteke ari  
 Gure ahala ttipia da bena denaz ziren zerbitzari.

II

Don Yuane hiri ederra, herri ederra Garazi.  
 Atarratzek Garaziri bihotzetikan goraintzi.  
 Ber odoleko oro girela ez dugu behar ahantzi.  
 Elgar ganako amodioa ezin ginioko utzi.

III

Baniera dugu ekharri ziena eta guria,  
 Kolorez eder eta garbi, gorria eta urria.  
 Hunek ez du nahi beretu mundu bazter handia  
 Zazpi izarrek zerratzen die gure Uskal-Herria.

IV

Bat egiten ikusten ditit Don Yuan eta Uharte  
 Aspaldian bagunian Ziberu herri horien entzute.  
 Parisen ere indar handia horiek omen badute  
 Yauna, han balia zaguski menditar gaichuen alde.

*Quijambun*

# San Bartholome Arratsian

NEHOR et C. DUFAU

Moderato

(Mugertarrak)


San Bar-*tho* - *lo* - *m'* *arratsi* - *an*, *Mi-la-fran* *ka* - *ko* *bi-di*.

- *an*, *Hi-ru* *la-gu* - *nek* *e* - *man* *tu* - *gu* *kantu* *ber-*

- *ri* - *ak* *bi-di* - *an*, *Mugerr* *en* *zer* *ger* *tha* *tu* *den*,

*A* *gorri* - *la* - *ren* *er* - *di* - *an*.

*rit.*



1

San Bartholom' arratsian,  
Milafrankako bidian,  
Hiru lagunek eman tugu kantu berriak bidian,  
Mugerren zer gerthatu den, Agorrilaren erdian.

2

« Jaun barbera erradazu,  
« Othoi zuk plazer baduzu,  
« Sendagailurik baldin bauzu, orai beharretan nauzu,  
« Eritasun handi batez, hurran akabatu nuzu ».

3

— « Emanadazu besuia,  
« Mira dezadan folsuia : . . . »  
« Sukarrik batere ez duzu, fresko daukazu larruia,  
« Nondikan sofritzen duzun, erranedazu egia ! ».

4

— « Erran nezake egia . . .  
« Harrituren da munduia !  
« Aspaldi badu mintzo zela, plaza hortako jendia,  
« Oilasko luma gorriak non othe duien kafia ? . . . »

5

Oilasko luma gorria,  
Emazu othoi guardia,  
Ez dela baizu kunkitzia oilanda chitan zarria,  
Uste gabe jin baitake etcheko buruzagia !!

X. X. X.



# San Bartholome Arratsian

Moderato

NEHOR of C. DUFAU

(Mugertarrak)

San Bar tho - lo - m'arratsi - an , Mi - la - fran ka - ko bi - di -

*p.* *mf*

- an , Hi - ru la - gu - nek e - man tu - gu Kan tu ber -

*mf*

- ri - ak bi - di - an , Muger ren zer ger thatu den ,

*p.*

A gor ri - la - ren er di - an .

*rit.* *p.*

1

San Bartholom' arratsian,  
 Milafrankako bidian,  
 Hiru lagunek eman tugu kantu berriak bidian,  
 Mugerren zer gerthatu den, Agorrilaren erdian.

2

• Jaun barbera erradazu,  
 • Othoi zuk plazer baduzu,  
 • Sendagailurik baldin bauzu, orai beharretan nauzu,  
 • Eritasun handi batez, hurran akabatu nuzu ».

3

— • Emanadazu besuia,  
 • Mira dezadan folsuia : . . .  
 • Sukarrik batere ez duzu, fresko daukazu larruia,  
 • Nondikan sofritzen duzun, erranedazu egia ! ».

4

— • Erran nezake egia . . .  
 • Harrituren da munduia !  
 • Aspaldi badu mintzo zela, plaza hortako jendia,  
 • Oilasko luma gorriak non othe duien kafia ? . . . »

5

Oilasko luma gorria,  
 Emazu othoi guardia,  
 Ez dela haizu kunkitzia oilanda chitan zarría,  
 Uste gabe jin baitake etcheko buruzagia !!

X. X. X.



# O Jinko Handia, zu zira

(Pastorale Souletine d'ABRAHAM)

NEHOR et C. DUFAN

Lent

0 Jín-ko handi — a , zu zi — ra

o — ro — ren kre — a — za — ti — a , É —

— za — zu , o — thoi , ni — ta — ra zou —

— re grazi — a ex — ti — a .

(Abrahamek Haranerik Chandorat (?) joiteko)

I

|                         |                          |
|-------------------------|--------------------------|
| O Jinko handia, zu zira | Zutarik dependitzen duzu |
| Ororen krezalia,        | ororen kountentamentia,  |
| Ezazu, othoi, nitara    | Ezi ene indar tchipiek   |
| zoure grazia ezta.      | deus ezizie balia.       |

(Loth bere illoba presountegitik libratu ondoan.)

II

|                         |                         |
|-------------------------|-------------------------|
| Jinko handi loriousa,   | Mirakullu egiten duzu   |
| ororen krezalia,        | plazer duzun aldi oroz, |
| Bethi zuk plazer duzuna | Khantatu nahi dizugu,   |
| izan bedi kounplitia.   | Jauna, egun boztarioz.  |

Gitian algarreki  
orai bertan erretira,  
Eta joan Sodomako  
erregiaren edireitera.

(Ainguriak abertitu zianian haurra ukhenen ziala.)

III

|                            |                      |
|----------------------------|----------------------|
| Ehun ourthetako gizonak    | Eta 90 urthetan,     |
| othian possible lizatia,   | Sara ene emaztia,    |
| Adin hartan, seme baten    | Posible izanen deia  |
| harek injendreatzia ? (1°) | seme baten sortzia ? |

(Sodomak eta Gamorrek erre behar ziala,  
Jinkoak Abrahami erran zeionian )

